


# IRAKURGAI ERREZAK

TEXTOS CON VOCABULARIO REDUCIDO PARA PRINCIPIANTES

2.º gn



Nun zer:

DAVID COPPERFIELD

PREPARADO POR:

**EUSKERAZALEAK**

Asociación para  
el fomento  
del vascuence

DAVID COPPERFIELD

CHARLES DICKENS

# DAVID COPPERFIELD

Engliseratik euskeraturiko  
laburpena, Zubiri'tar Iñaki'k  
egindakoa

## DAVID COPPERFIELD

Gau txarra ta euritsua zan. Neure aita il izan zan, eta ama bakarririk egoan. Ume egiteko zan eta gaixorik egoan. Atean dei bat aditu zan.

—Atean jo egin dabe Peggotty —amak esan eban.

Peggoty gure neskamea zan, baiña adiskide bezelakoa.

—Ba-noa —Peggotty'k erantzun eutson.

Joan eta atea zabaldu eban. Peggotty'k jarraituriko Trotwood Andereiñoa gelan sartu zan. Neure aita zanaren isekoa zan.

—Non dago seiña? —itaundu eban.

Ama bere bildur zan. Agots zakarra eban.

—Oraindik ez da jaio —esan eutson amak— laster elduko da.

—Ez zaitut lenago ikusi —Trotwood Andereiñoak agots zakarrak esan eutson— oraindik ume bat baiño ez zara, ezta? Zure senarra il yatzu ta bakarrik zagoz. Baiña ez larritu. Aurra neskatotxua izango da, ta nik neskatotxuak maite ditut. Aurra zainduko dot.

—Eskerrik asko —amak esan eutson— Parkatu, joan bear dot. Ez nago ondo. Neure gelara noa.

Itxaron bitartean, Trotwood Andereiñoa aulki baten jesarri zan. Gero, osagillea sarturik, zutundu zan.

—Seiña eldu ete da? —itaundu eutson.

—Bai —Osagilleak erantzun eutson.

—Neskatotxua ete da?

—Ez, ez, mutikotxua da.

—Ez dot mutikotxurik gura —deadar egin eutson Trotwood Andereiñoak—. Ez dodaz mutiko txikiak maite.

Asarratuta egoan, eta bereala etxetik urten zan. Ez eban iñoiz nire ama barriri ikusi.

Mutikotxua ni izan nintzan, eta neure izena David Copperfield da. Urteak arin igaro ziran, eta sei urte egin nebazan. Orduan ez nebazan gizaki bi baiño ezagutzen: ama ta Peggotty. Asko maite nebazan. Alkarrekin oso zoriontsuak gintzazan.

Igande guztietan ama ta biok eleizara giñoazan. Igande batean, eleizako urteeran, gizon batek gelditu ginduzan. Ule baltzakoa zan, eta bere bildur nintzan.

—Egunon, Copperfield Andrea —esan eban.

—Alan ekarri, Murdstone Jauna —amak erantzun eutson.

—Ondo egon zaitezcan opa dautzut —esan eutson berak.

Irribarretsu begiratzan ninduan, baiña nik bera ez neban maite. Ez neutson irribarrik egin.

—Ederto, eskerrik asko Murdstone Jauna —amak erantzun eutson.

Gizonak eskua buru gainean ipiñi eustan.

—Au zure semetxua David ete da? —itaundu eban.

Nik alde egin neban. Eskua nigandik kendu, ta une batez asarratuta begiratu ninduan. Gero barriri amari irribarre egin eutson.

—Zure etxera joan al naiteke? —itaundu eutson.

—Bai benetan —erantzun eutson amak.

Agur esanda gizona joan zan.

Ni asarrututa nengoan. Ez neban ikusi gura, baiña bera gurera sarri askotan etorran. Peggotty be askotan ikusten eban. Amari atsegin yakon baiña Peggotty'ri ez.

Bein baten, Lowestoft'era eroan ninduan. Nik ez neban Murdstone Jauna maite, baiña Lowestoft'era joan gura neban. Itxasaldeko uri polita da. An Murdstone Jaunaren lagun batzuk ikusi genduzan.

—Zure laguna, Copperfield Andrea, oso polita da, ezta? —batak esan eutson.

—Kontuz!, mutil onek gauzak ulertzen dauz, eta bere amari esango dautso —Murdstone Jaunak erantzun eutson.

Danak barre egin eban.

Amari esan neutson: Gizon arek esan eban «Copperfield Andrea polita da».

—Ez olakorik esan, ez da egirik.



Peggoty Jaunaren etxea itxasontzi antzekoa zan.

Aurpegia gorria eban, baiña barre egin eban.

Nik ez neban ulertu, sei urtekoa baiño ez nintzalako, eta orduan ez neban gauza askorik ulertzen.

Illabete batzuk igaro ziran. Egun baten, amak esan eustan:

—David, itxasoa maite dozu?

—Bai benetan! —erantzun neutson.

—Itxasaldean opor bat artu dagikezu —esan eustan.

—Nora joango gara?

—Ez «gu» erabilli David —erantzun eustan amak— Ni ez naz zurekin joango. Peggotty'rekin Yarmouth'era joango zara. Yarmouth be itxasaldeko uria da. Peggotty'ren neba an bizi da. Beragaz egon zaitkez. Joan gura dozu?

—Bai benetan. Zergaitik ez zatoz zeu be?

—Orain ezin dautzut esan —berak erantzune ustan—. Itzuli zaitzanean, ulertuko dozu.

Olan ba, Peggotty ta biok Yarmouth'era joan gintzazan. Peggotty Jaunaren etxea itxasontzi antzekoa zan, eta atsegin yatan. Etxean lau lagun bizi ziran. Ham an bizi zan. Onen aita il izan zan. Emily be Peggotty Jaunarekin bizi zan. Onen ama Peggotty Jaunaren aizta izan zan, baiña guraso biak il izan yakozan. Gummidge Andrea be emen bizi zan. Gummidge Jauna Peggotty Jaunaren adiskidea zan, baiña il izan zan be. Ildako iru gizonak arraintzaleak ziran, eta itxasoan il izan ziran. Peggotty Jauna be arraintzalea zan. Oso maitekorra zan eta Ham, Emily ta Gummidge Andrea berarekin biziten itziten ezaban.

Emily neskatotxu oso ederra zan. Ikusi baiño ez, maite izan neban. Asieran neure bildur zan, baiña laster lagunak gintzazan. Sarri askotan alkarrekin itxasora giñoazan. Arean jesarriten gintzazan, eta itxasoari begiratzen genduan.

—Bildur naz —Emily'k esaten eustan—. Itxasoaren bildur zara?

—Ez —erantzuten neutson.

Baiña ez zan egia.

—Itxasoak neure aita il eban.

—Ba-dakit —erantzuten neutson.

—Neure aita il zanean, Peggotty Jaunak bere ardura-pean artu ninduan. Gizon ona da.

—Bai, ona da —esaten neutson—. Oso maitekorra. Asko maite dot.

—Emakumea biurtu nadinean, diru asko eukiko dot —Emily'k esaten eustan— lan asko egingo dot eta diru asko irabazi be. Or-

duan jantzi politak Peggotty Jaunarentzat erosiko dodaz, eta dirua emongo dautsot.

Gummidge Andrea ez zan Emily langoa. Gummidge Andrea beti goibel eta keixu egoan. Gau baten Peggotty Jauna urten zan, eta Gummidge Andrea keixu zan.

—Non dago Peggotty Jauna? —itaundu eban—. Bakarrik itzi nau. Nitzaz ez da arduratzen. Lagunik ez ditut. Jendea ez da nitzaz arduratzen.

Au ez zan egia. Peggotty Jaunak Gummidge Andrea begiratzen eta zaintzen eban. Emakume au sarri askotan keixu zan, baiña Peggotty Jauna ez zan asarratzen. Berarentzat beti maitetsua zan.

Yarmouth'en oso pozik izan nintzan baiña laster amaitu zan. Ez nituan Peggotty Jauna, Ham, eta Gummidge Andrea itzi gura. Oso mingarria izan zan Emilytxu itzitea.

—Agur Emily —esan neutson— ez yat atsegin joatea.

—Agur David —erantzun eustan— zutzaz gogoratuko naz.

—Nik be, gogoratuko zaitut —esan neutson—. Eskutitzak bialduko dautzudaz.

—Bai orixe —erantzun eustan— ta ez nitzaz aztu.

Gure etxea barrero ikusi nebanean, zoriontsuagoa aurkitu nintzan.

—Etxean gagoz Peggotty —oiu egin neban— ama pozik izango da, ezta?

Baiña Peggotty ez eustan erantzun. Neskame barri batek atea zabaldu eban. Ama ez egoan etxean.

—Non dago ama? —Peggotty'ri itaundu neutson— Zergaitik ez dago etxean?

—Itxaron —esan eustan Peggotty'k— berak azalduko dautzu.

—Ez, erantzun neutson —esan egidazu orain. Non dago?

Bildur nintzan.

—Aita bezela il ete da?

—Ez olakorik esan! —Peggotty'k erantzun eustan besoetan artzen ninduala—. Ez da il.

—Zer jazoten da —deadar egin neban—. Non dago?

—Esango dautzut. Aita barria dozu. Bera ta zure ama egurastuten joan dira.

Nor da bera? izango ete?...

—Bai —erantzun eustan Peggotty'k—. Zure aita barria Murdstone Jauna da. Zure ama orain Murdstone Andrea da.

## 2'GN ATALA

Neure lo-gelara joan nintzan. Aurpegia oe-estalkian ipiñi ta negar egin neban. Nire negarra ixilla zan baiña ama Peggotty'rekin etorri zan.

—David, zer jazoten yatzu? —itaundu eustan.

—Ez dagikizut esan —negarrez erantzun neutson.

—Au zuk egin dozu! —amak Peggotty'ri esan eutson— David naigabeturik dago, zer esan dautsozu?

—Esandakoak ez dau olakorik egin, Copperfield Andrea —Peggotty' bota eutson— beste gauza da.

Murdstone Jauna an egoan.

—Peggotty-esan eutson —ez olakorik barriro esan!

—Zer esan dot ba?

—Neure emazteari «Copperfield Andrea» esan dautsozu. Ez da Copperfield Andrea. Neure emaztea baiño. Orain Murdstone Andrea da. Ez aztu ori.

—Bai, Murdstone Jauna —Peggotty'k erantzun eutson.

Murdstone Jaunaren bildur zan, eta gelatik urten zan.

—Klara neure maitea —amari esan eutson Murdstone Jauna'k.

Neure amaren lenengo izena Klara zan.

—David txarto azi dozu. Neska antzekoa biurtu da. Ez da sendorik ez azkarrik. Oraintxe bertan berarekin berba egingo dot. Mesedez urten zaituz.

—Bai, maitea —amak esan eutson.

Urten zan. Bildurrez beterik Murdstone Jaunarekin geratu nintzan.

—Nik ez dautzut txarto aziko David —esan eustan—. Orain entzun egidazu.

—Bai, Murdstone Jauna —esan neutson.

—Nire txakurra edo zaldia okerra danean, joten dot —esan eustan—. Makilla batez joten dot, eta gogor gaiñera. Zu okerra izan zara. Zure amak senar barria dau, baiña zu ez zagoz pozik. Negar egin dozu. Okerra ba'zara urrengoan joko zaitut. Oso gogor joko zaitut. Entzun?

—Bai, Murdstone Jauna —Erantzun neutson.

—Ederto —abots gogorraz esan eustan—. Orain zatoz nirekin.

Amagana joan, eta alkarrekin apaldu genduan. Apaldu ta gero. Murdstone Andereiñoa eldu zan. Murdstone Jaunaren arrega zan, bai ta onen itxurakoa be. Ule baltzadun eta aurpegi gogorrekoa zan. Bere jantziara be olakoa zan. Gelan sartu ta niri begira geratu zan.

—Ez da mutil ona.

Abots zakarrekoa zan. Murdstone Andereiñoa gurekin geratu zan. Goizetik jagiten zan beti. Etxetik ebillan eta gela guztiak ikeretzen zituan.

Lenengo goizean esan eban:

—Klara, etxea erabiliko dot.

Amak ez eban olakorik gura. Egun baten esan eban:

—Lagundu gura dot. Murdstone Andereiñoak etxea darabil, beraz ez dot zer egitekorik. Ori ez yat atsegin.

Murdstone Andereiñoa asarratu zan eta bere nebak amari esan eutson:

—Klara, zuk ezin dozu etxea erabili. Kaskariña zara.

—Joango naz —Murdstone Andereiñoak esan eban—. Orain bertan etxetik joango naz.

—Ez —esan eutson Murdstone Jaunak— Klara'k kaikukeri bat esan dau. Geratu bear zara. Etxea erabili bear dozu.

Amak negarrari emon eutson, baiña ez eban barriro berbarik esan.

Igandetan guztiok eleizara joaten gintzazan. Murdstone Jauna, Murdstone Andereiñoa ama ta ni alkarrekin egoten gintzazan. Baiña orduan eleiza ez zan leku atsegifik.

Murdstone Jaunak ikasketak irakasten eustazan. Len amak au egiten eban. Amarekin ondo ikasten neban, baiña Murdstone Jaunarekin ezin ikasi. Beti bere bildur nintzan. Egunero ikasketari ekiten neutson. Alegiñak egiten nebazan, baiña dana alperrik.

—Mutil au kokoloa da —amari iñotson— ezin dau ikasi. Beraz gaur ez dau aparirik izango.

Geienetan ez neban apaltzen. Ogi zati bat baiño ez neban arzten.

Bein baten, Murdstone Jaunak makilla bat ekarri eban. Eskuan oraturik, neugana etorri zan esanaz:

—Gogoratu egizuz ikasketak edo joko zaitut —esan eustan.

Gogoratu gura nebazan, baiña ezin.

—Mutil oker, kokoloa zara! Ez dakizuz zure ikasketak. Zatoz neugaz!...

Au esanik, nire gelara joan gintzazan. Bere besoari oratu neutson.

—Murdstone Jauna arren! —esan neutson— ez ni jo! Ezin dot zurekin ikasi. Ikasi gura dot, baiña ezin!

—Ikasi dagikezu, ta ikasiko dozu be.



Murdstone Andereñoa giltza eban.

Besoaz eutsi ta gogor jo ninduan. Deadar egin neban, eta gero eskua usigi neutson!

Asko asarratu zan. Bein eta barriz jo ninduan. Lurrera jausi nintzan. Gero urten zan. Atea giltzaz itxi eta berarekin eroan eban.

Etxea ixillik egoan. Ezin negikean ezer entzun. Ama ez zan nire gelara etorri. Oso bakarrik nengoan.

Goizea igaro zan, bai ta arratsaldea be. Gaua eldu zan, eta oin-diño bakarrik nengoan. Orduan norbaiten ibillera aditu neban. Giltza bira egin eban, eta Murdstone Andereñoa gelan sartu zan. Janari apur bat emon eustan, baiña ez eban berbarik esan. Urren-go egunean barriro agertu zan.

—Baratzean ibilli zaitেকেz —esan eustan.

Egurastutera urten nintzan.

Urren-go bost egunak bardiñoak izan ziran. Ez neban ama ikusi, Murdstone Andereñoa baiño. Giltza eban eta ezin neintekean gura nebanean gelatik urten.

Gero Peggotty etorri zan. Atea itxita egoan eta beste aldetik berba egin eustan.

—Peggotty —esan neutson— zu ete zara?

—Bai David.

Negarrez egoan bai ta ni be.

—Ama asarratuta al dago? —itaundu neutson.

—Ez, ez dago asarratuta.

—Zer gertatuko yat?

—Ilkastola batera joango zara —Peggotty'k esan eustan— London'etik ur dago.

—Noiz joango naz?

—Biar goizean. Entzun dagikedazu?

—Bai —esan neutson— ondo entzun dagikizut.

—Ez nagizu aztu —esan eustan Peggotty'k negarrez— Nik ez zaitut aztuko. Zure ama zainduko dot.

—Eskerrik asko, Peggotty maitea. Berba emon egidazu gauza bat egitea. Peggotty Jaunari ta Emily'ri idaztea. Esaiezu gaiztorik ez nazala.

—Egingo dot, David —Peggotty'k erantzun eustan— Biar idatziko dautset. Benetan diñotzut.

Urren-go goizean Murdstone Andereñoa etorri zan. Neure jantziak kutxa batean ipiñi ebazan. Amagana joan nintzan.

—Ai David —amak esan eustan— Murdstone Jaunari ta neuri min egin dauskuzu. Murdstone Jauna maite dot. Ez zara mutil ona





Barkis Jauna gurdi-gidaria zan.

Ezin neban gauzarik jan. Oso naigabetuta nengoan. Gurdi bat etorri ta atean gelditu zan. Nire kutxa gurdian sartu eben.

—Agur David —esan eustan amak— etxera laster etorriko zara, ta mutil ona izango be.

—Klara —Murdstone Andereñoak esan eutson— itzi mutila joaten.

Gurdira eroan ninduan, eta gero urten gintzazan.

### 3<sup>o</sup>GN ATALA

Gurdiak Yarmouth'eraíño eroan ninduan. Barkis Jauna gurdi-gidaria zan, eta Peggotty'ri buruz amaika itaune egin eustazan. Berarekin ezkondu gura eban, baiña bildur zan berari esatea. Peggotty'k ez ekian ezer.

Yarmouth'en London'erako gurdi bat artu neban. Gurdia lagunenez beterik egoan eta ez zan eroso. London'era eldutean poztu nintzan. Etxe bateko gela baten itxoin neban. Azkenean gizon gazte bat sartu zan. Oso argala zan eta jantzi baltzak erabillazan.

—Mutil barria zara? —itaundu eustan.

—Zatoz nirekin —esan eustan—. Mell da nire izena. Ikastolan irakasten dot. Ara eroango zaitut. Oso urrun dago.

Orduan janari apur bat erosi neban eta aren amaren etxera joan gintzazan. Etxe txikia zan eta ama beartsua. Semea ikustean alaitu zan. Sutondoan jesarri ta jaten asi nintzan. Yarmouth London'etik urrun dago ta gose nintzan.

—Jo txilibitua —Mell andreak esan eban.

Mell Jaunak txilibitua atara ta jo eban. Txarto jotzen eban, baiña bere amak zorionez beterik irribarre egiten eutson. Gero, etxetxu landerratik ikastolara joan gintzazan.

—Au zure bizi-leku barria dozu —esan eustan Mell Jaunak—. Erakutsiko dautzut. Jarraitu egidazu.

Ikas-gelara eroan ninduan. Toki aundi ta utsa zan. Idaz-mai baten ganean ol zuri bat egoan. Onetan onoko itzok egozan: «Kontuz, usigi egiten dau».

—Baiña Mell jauna —esan neutson—. Txakurra non ete dago?

—Zein txakur?

Ola erakutsi neutson.

—Ez dago txakurrik —erantzun eustan—. Ol ori zureztat da. Eroan bear dozu.

Gau aretan ikastolan lo egin neban. Jagi nintzanean, ola ipiñi ta eroan neban. Egunero eroaten neban eta orrek naigabetzen ninduan.

Ikastolan bakarrik nengoan, eta onetatik osteratxu bat egin neban. Ate aundi batean izen asko ikusi nebazan. Oneitariko bi, «Steerforth» eta «Traddles» ziran. Onek biek erakarri ninduen. Izen bi orreik sarri askotan gogoan nebazan.

Creakle Jauna Ikastolaren jaubea zan, eta azkenik etorri zan. Gau aretan Mell Jaunak bera ikustera eroan ninduan. Aurpegi gorria te begi txikiak ebazan. Asarratuta eritxan eta berba egiten eban suzmurka. Beraren eta bere suzmurraren bildur nintzan.

Neure belarriari eutsi eutson.

—Gizon gogorra naz, eta mutil okerrak ez dodaz maite. Beraz, zaitetz mutil ona.

—Bai Jauna —erantzun neutson—. Gauza bat mesedez.

—Zer? —abots asarratuaz itaundu eustan.

—Ez yat gogoko ol au eroatea.

—Zer? —Creakle Jaunak deadar egin eustan—. Egunero erabilli bear dozu. Orain kanpora!

Jagi zan eta gelatik arifieketan urten nintzan.

Traddles ikastolara lenengoa eldu zan. Berba egin eustan, olari aitatu barik. Traddles atsegin yatan.

Gero mutil-talde aundia eldu zan.

—Aitu mutil ori —esan eben— usigi egiten dau. Txakur bezelakoa da.

Barre egin eusten, eta zoribakoa ta bakarrik aurkitu nintzan.

Steerforth eldu zan.

—Kaixo Copperfield —esan eustan.

—Kaixo Steerforth —erantzun neutson.

—Dirurik ba'daukazu?

—Bai.

—Emon egidazu —esan eustan—. Lagunduko dautzut. Gordeko dautzut.

Dirua emon neutson.

—Zeozter gastau gura izango dozu, ezta?

—Ez dakit —erantzun neutson.

—Bai, ba-dakizu —erantzun eustan—. Ardau ta opil batzuk erosiko dautzudaz.

Gau aretan opillak jan eta ardoa edan genduan. Ori dana gure gelan. Mutil guztiek lo-gela bakar baten lo egiten genduan. Ikastola-

ko barriak emon eustezan. Creakle Jauna ez-jakin eta irakasle txarra zan. Geienetan irakasleak ez dira ez-jakiñak, baiña Creakle Jauna oso ez-jakiña zan.

Urrengo egunean, Creakle Jaunak ikertu ginduzan. Ikas-gelan alkarturik gengoan. Zigor bat eukan eta maira etorri yatan.

—Copperfield —esan eustan— zuk usigi egiten dozu, ezta?

Zigorra erakutsi eustan.

—Au da neure usigia.

Eta gogor jo ninduan.

—Atsegin yatzu? —barrero jotzen ninduala itaundu eustan— ez da gauza polita?

Barriz jo ninduan eta negar egin neban.

Aurreneko egun a ez yatan gogokoa. Creakle Jaunak mutil guztiak jotzen ebazan, baiña Steerforth ez eban ukututen.

Asteak igaro ziran. Gau bakotxean Steerforth'eri ipuin luze bat kontatzen neutson. Ipuñiak maite ebazan eta neure laguna zan. Mell Jaunak be maite ninduan. Irakasten ninduan eta ikasketak ondo ikasten nebazan. Azkenean, ola kendu eustan.

Bein baten, opor artu genduan, eta jakiña, lanarik ez. Ikas-gelan gengoan. Mell Jaunaren ondoan zutunik nengoan. Mutillek zarata aundia egiten eben. Zaratatsu ta zoroak ziran, eta Steerforth zaratatsuen.

—Steerforth —Mell Jaunak esan eutson— ixillik egon.

—Nori egiten dozu berba? —erantzun eutson Steerforth'ek.

—Zeuri, Steerforth. Oso zakarra zara.

—Ni ez naz zakarra —Steerforth'ek erantzun eutson—. Ni jauna naz eta zu irakasle gaixo bat. Jaun bat ezin dagike gizon txiro barentzat zakarrik izan.

—Zu ez zara jaunarik —esan eutson Mell Jaunak—. Jaunek besteei ez dautsie kalterik egiten. Zuk Copperfield'eri kalte egiten dautsozu. Bera mutil ona da, baiña zu ez.

—Ixillik egon zaitetz —Steerforth'ek oi ugin eutson— ixillik edo joko zaitut.

—Zer jazoten da emen? —Creakle Jauna gelan sartu zan. Oso asarratuta eritxan— Mell Jauna zertan zabilzt?

—Steerforth nerekiko zakarra izan da.

—Steerforth?—Creakle Jaunak esan eutson—. Baiña bere ama andre oso aberatsa da, ta bera jaun bat da. Steerforth, zakarra izan ete zara?

—Ez. Txiroa dala esan dautsot. Ba-dakit be bere ama oso txiroa dala.

—Egia al da? —itaundu eutson Creakle Jaunak.

—Bai —Mell Jaunak erantzun eutson.

—Mell, ez nekian txirorik ziñala —esan eutson Creakle Jaunak—. Emen irakasle guztiak jaunak dira. Emen txirorik ez dogu maite.

Guztiok Mell Jaunari begiratzan genduan. Bere idaz-maitik liburuak eta txilibitua artu, ta gelatik urten zan. Ixillik gengoan Steerforth'eri begiratu barik.

Gero, Traddles'ek esan eban:

—Tamala dot Mell Jauna joateagaitik.

—Tamala? —Steerforth'ek erantzun eutson —Zergaitik tamala izan? Ori kaikukeria da.

—Mell Jauna txiroa da ta orain ez dau lanarik. Bere amarentzat ezin dirurik lortu —erantzun eutson Traddles'ek.

—Dirua bialduko dautsot —Steerforth'ek esan eutson—. Aberratsa naz. Baiña nereko zakarra izan da, ta gizon zakarrak ez ditut maite.

Neu be atsekabetuta nengoan. Steerforth maite neban eta bere laguna nintzan, baiña Mell Jauna neretzat ona zan beti. Ikasketan beti laguntzen eustan. Ez genduan barriri alkar ikusi.

Bein baten zoriontsua izan nintzan. Peggotty Jauna ta Ham ni ikusten etorri ziran.

—Kaixo David! —Peggotty Jaunak esan eustan— London ikeretzen gabiltz. Zeozer egiteko daukagu emen. Zu ikusi gura genduan eta emen gagoz.

—Poztuten naz —erantzun neutson—. Zelan dago Emily?

—Ondo, oso ondo dago.

—Eta Gummidge Andrea?

—Oso ondo be, eskerrik asko.

—Esku erakutsi bat ekarri dautzugu —esan eustan Ham'ek—. Arraiña da. Arrainkia atsegin yatzu?

—Bai benetan —erantzun neutson— asko.

Ikastolan beti gose nintzan. Alako baten, Steerforth sartu zan. Ham eta Peggotty Jauna ikustean, gelditu zan.

—Parkatu —esan euskun— ez nekian emen zengozela, zeuen jarduna eten egin dot.

—Ez gaituzu aspertzen —esan neutson—. Nire lagunak dira. Au Peggotty Jauna da, ta beste au Ham.



Aur barria besoetan eban.

Steerforth'ek Ham'eri eskua emon eutson, eta gero Peggotty Jaunari.

—Peggotty Jaunak Yarmouth'en etxe bat dauka —Steerforth'eri esan neutson— txalupa baten itxurakoa da.

—Oso jakingarria da —Steerforth'ek erantzun eustan.

—Yarmouth'era laster joango naz —esan neban— Steerforth eroan al dot? Zure etxea alkarrekin ikusi dagikegu.

—Bai —esan eustan Peggotty Jaunak— pozik artuko zaituegu. Ez aztu.

Orduan bera ta Ham joan ziran. Gau aretan arraiña jan genduan, eta guztiz gozoa izan zan.

Azkenean, egun zoriontsua eldu zan. Opor eguna zan eta pozik nintzan Ikastola itziteagaitik.

#### 4'GN ATALA

Yarmouth'era gurdiz joan nintzan, eta gero Barkis'ek etxera eroan ninduan. Eldu giñanean, ama abestuten egoan. Bere abestia entzun eta gero, atean agertu zan. Aur barria besoetan eban. Anaitxu bat neban.

Ni ikusi baiño ez, besoakaz inguratu ninduan. Peggotty be zoriontsua zan.

Sutondoan jan genduan eta Peggotty gurekin. Esan neutson Barkis'ek berarekin ezkondu gura ebala. Barre egin eban, baiña aurpegia gorritu yakon. Ezin egikean guri begiratu, eta eskuakaz aurpegia estaldu eban.

—Barkis zentzunbakoa da —esan euskun.

—Ai! —esan eutson amak naigabetuta—. Barkis'ekin ezkonduko zara? Itzikoz nozu?

—Ez nire maitea. Ez zaitut itziko.

Amak besarkatu eban eta pozez beterik jardunari jarraitu geutson. Gero Murdstone Jauna'tzaz berba egin genduan. Peggotty'k ez eban maite.

—David'eri buruz ez da maitekorra —esan euskun.

—Bai, maitekorra da —amak erantzun eutson— Peggotty zarkarra zara ta asarratuta nozu.

—Ez zaituz asarratu —erantzun eutson Peggotty'k—. Tama la dot.

—Ez nago benetan asarratuta. Zoriontsua naz. David etxera etorri yaku. Ipuin bat irakurriko dauskuzu?

Orduan ipuin bat irakurri neutsen, danok zorion eta pozez beterik giñala. Amarrak jo ebenean, Kanpoan jendea entzun genduan. Murdstone Jauna ta bere arreba ziran.

—Orain oera joan David —amak suzmurka esan eustan— Joan arin.

Oera joan nintzan, eta gau aretan ez neban Murdstone Jauna ikusi. Urrengo goizean ikusi neban. Sutondoan zutunik egoan eta beragana joan nintzan.

—Damu dot Jauna zuri usigi egin izatea —esan neutson.

Eskua astindu eustan, baiña barbarik ez. Bere begiak oindifio otz eta asarrekoiak ziran.

Murdstone Andereiñoa mai-ondoan jesarrita egoan.

—Zenbaterako dira oporrak? —itaundu eustan— noiz joango zara barriro?

—Illabete baten barruan.

—Illabete bat! Ori oso luzea da!

Une batez oldoztuten egon zan. Gero, itxura alaiagoaz esan eustan:

—Egun bat igaro da onezkaro. Laister barriro itziko gaituzu.

Murdstone Jaunak ez eustan sarri askotan barbarik egiten. Geienetan, ama ta Murdstone Andereiñoarekin egoten nintzan Neure anaitxua gurekin egoten zan beti. Asko maite neban. Bein batean amak seiña besoetan eukala, beragana joan eta artu neban.

—Klara! —deadar egin eban Murdstone Andereiñoak.

—Zer jazoten da? —amak itaundu eutson.

—Ez itzi mutil ori seiña eusten! —oiu egin eban— kalte egingo dautso-ta.

Bereala seiña kendu eustan. Asko naigabetu nintzan.

Murdstone Jaunarekin ta onen arrebarekin nengoanean, oso urduri sentitzen nintzan. Augaitik neure gelan egoten nintzan ipuiñak irakurten. Murdstone Jaunari au ez yakon atsegin, eta egun baten dei egin eustan.

—David, zakar eta muzintsua zara. Zeu lango mutillak ez yataz atsegin. Egunero zure gelan itxita edo neskame ez-jakiñekin egoten zara —Peggotty'ri buruz ari zan—. Nigandik iges egiten dozu bai ta nire arrebagandik be. Ori itsusia da. Beraz gure gelara etorri bear dozu. Gaurtik etorriko zara. Zure amarekin, Murdstone Andereiñoarekin eta nirekin egongo zara.



Peggotty'k besarkatu ninduan.

Gauero, eurekin jesarriten nintzan. Ez eusten barbarik egiten. Murdstone Jaunak eta berauen arrebak ez eben barbarik esaten, eta ama bildur zan eurek aspertu-arazoten. Ikastola-liburuak irakurten nebazan, eta aspertuta ta zorigaiztokoa sentitzen nintzan. Bederatzi-bederatzietan oera niñoan. Au gauero jazoten zan. Gero, oporrak amaitu ziran. Barkis gurdiaekin etorri zan.

Murdstone Jaunari agur esan neutson. Murdstone Andereiñoari agurtu ta amari musu bat emon neutson. Gero urten nintzan. Egun oso otza zan. Ama ate-ondoan egoan. Eskuaz agurtu eustan, ta seiña besoetan eukan. Gero, gurdiak kaleko biurgunea artu eban. Ez nebazan barriro ikusi.

Illabete bi igaro ziran. Egun baten, Creakle Andreak dei egin eustan. Bere gelara joan eta:

—David —itz maitekorraz esan eustan— tamala izango dozu, baiña kementsua izan. Zure ama gaixorik dago.

Ez neban barbarik esan. Begira nengoan.

—Zure ama il da —esan eustan.

—Eta nire anai txikia? —itaundu neutson.

—Oso gaixorik dago. Oxo txarto dago. Biar etxera joango zara.

Etxera eldutakoan, lenengoa Murdstone Andereiñoa ikusi neban. Ez eustan esan: «Zure ama il da ta tamala dot».

Otz-otz berba egin eustan.

—Zoaz zure gelara, ta arin be.

Murdstone Jauna ikusi nebanean, ez eustan itzik esan. Etxetik ibilli ebillan jesarriteko gauzarik ez zala. Liburu bat eroian, baiña ez egikean irakurri. Oso naigabetuta egoan be.

Peggotty'k besarkatu ninduan.

—Zure ama luzaro gaixorik egon da —esan eustan—. Zutza egunero berba egiten eban. Asko maite zinduzan. Gogoratu eizu.

—Bai benetan! —esan neutson.

Baiña ama zorionsu bat gogaratu gura neban. Murdstone Jaunarekin ezkondu zanetik, zorigaiztokoa izan zan. Aspaldi au baiño, leengoa gogoratu gura neban.

Ez nintzan ikastolara biurtu. Ikastolan dirua gastau bear, eta Murdstone Jaunak ez eban dirurik emon gura. Olan ba etxe itun gogaitu aretan geratu nintzan. Orain gorroto eustan. Ama illa egoan, eta bai berak bai bere arrebak gorroto eusten.

—Murdstone Jaunak ez dau gura ni emen egotea —bein batean Peggotty'k esan eustan.

Bere gelan gengoan.

—Lan barri bat topau bear dot. Yarmouth'era joango naz. Neugaz etorriko zara? Opor bat alkarrekin izango dogu.

Murdstone Jaunak Yarmouth'era joaten itzi ninduan. Barkis'en gurdian joan gintzazan. Peggotty'rekin joateagaitik guztiz pozik egoan. Berak be Barkis maite eban.

Peggotty Jaunaren etxera eldu giñan. Gu ikustean asko poztu zan.

—Non dago Emily? —itaundu neutson.

—Ikastolan dago.

—Zergaitik ez dator? —Gummidge Andrea keixu zan.

Gummidge Andrea oindiño zoritxarrekoa zan.

—Laster etorriko da —esan euskun Peggotty Jaunak.

Emili sartu ta gu ikustean arritu zan.

—Kaixo Emily —esan neutson.

Oso polita eritxan.

—Mosu bat emon al dautzut?

—Ez, ori ez yat atsegin. Ergelkeria da.

Aurpegi gorri-gorria eban. Gero, nigana etorri ta eskua emon eustan.

—Ba-dakit zure ama ta anaitxua il dirala. Oso tamala dot David.

Bere begi urdiñak ezotua egozan. Guztiz atsekabetua ta polita eritxan.

Danok Peggotty Jaunaren etxean bazkaldu genduan. Gero berbetan asi gintzazan.

—Zure adiskide Steerforth mutil guztiz begikoa da! Peggotty Jaunak esan eustan.

—Bai benetan —erantzun neutson— eta ganera argia da. Ni ez naz argia, baiña berak gauzak bereala ikasi dagikez.

—Begira Emily'ri —Peggotty Jaunak barreka esan eban— oindiño ez dau Steerforth ikusi, baiña onezkero atsegin yako.

Emily'ren aurpegia gorritu zan. Eskuakaz estaldu eban. Peggotty Jaunak eta Ham'ek barre egin eben. Emily asko maite ta losintatzen eben.

Yarmouth'en egonaldiak beti atsegiñak ziran. Bein baten, ezuste bat artu neban. Peggotty, Barkis Jaunarekin urten zan. Biek jantzi barriak erabiltzazan. Biurtu ziranean, Peggotty Barkis'en emaztea zan.

Baiña egotaldi zorionsua laster amaitu zan. Etxera biurtu gintzazan. Etxea itun eta nekagarria zan. Murdstone Jaunak ez ninduan jo, ta jatekoa emoten eustan. Baiña ez eustan ezer esaten.

Bein baten, Murdstone Jaunak dei egin eustan, eta bere gelara joan nintzan. Berarekin gizon bat egoan.

—Au Quinion Jauna dozu, David —Murdstone Jaunak esan eustan— London'en idartzola dauka. Berarentzat lan egingo dozu, ta ez zara ikastolara joango, Jateko dirua emongo yatzu. Zure gela ordainduko dautzut. London'era joango zara bai ta laster be.

## 5'GN ATALA

Idartzola oso zikin eta illuna zan. Nirekin mutil bi lan egiten eben. Egutero bonbil loiak garbitzen genduzan. Orduan amar urtekoa nintzan bakarrik. Lana gorroto neban.

Lenengo egunean Quinion Jaunak dei egin eustan. Berarekin jaun bat egoan. Jaun onek jake gaztinkara erabillan, eta buru-soil utsa zan.

—Au Micawber Jauna dozu —Quinion Jaunak esan eustan—. Berarekin biziko zara.

Eskua alkarri emon geuntson.

—Noiz lagaten dozu lana? —Micawber Jaunak itaundu eustan.

—Zortzi-zortziretan Jauna —erantzun neutson.

—Ordu orretan ona etorriko naz —esan eustan Micawber Jaunak—. Etxera eroango zaitut. Gero, erraz aurkituko dozu.

Gau aretan Micawber Jaunak bere etxera eroan ninduan. Aundia baiña oso erkiña emoten eban. Micawber Andreak bere senarratzaz berba egin eustan.


—Micawber Jauna ez da zorionsua. Diru-gauzetan zoritxarrekoa da. Askori dirua zor dautso. Zorduna da ta ezin ordaindu.

Quinion Jaunak astero sei Shilling ordaintzen eustazan. Diru guztia janarian eralgiten neban. Ezin negikean janari askorik erosi, ta beti gose nintzan.

Goizean ogi-zati bat jan eta katillu esne edaten neban. Gauean barriro ogia jan. Aparia London'en erosten neban. Biziera garratza zan. Txiroa nintzan eta beti gose.

Baiña Micawber'tarrak txiroak ziran be.

David —Micawber Andreak bein baten eskatu eustan—. Etxean ez dago dirurik ez janaririk be.



Ertzaiñak Micawber'tarrak espetxera eroan ebazan.

Eskua sakelan sartu neban.

—Shilling bi emen daukadaz —esan eta emon neutsozan—. Artu egizuz.

—Eskerrik asko David —esan eustan— baiña ez dot zure di-ruaren bearrrik. Micawber Jaunaren liburuak saldu gura dodaz. Li-  
buruak dendaren batera eroango ete dozuz?

Oso zorigaiztokoa zan.

—Bai —esan neutson.

Liburuak saldu nebazan. Dirua Micawber Andreari emon neu-  
tsan. Pozik egoan eta mosukatu ninduan. Arrezkero, sarri asko-  
tan berarentzat gauzak saltzen nebazan. Baiña aldi txarrak ziran.  
Askotan Micawber Jauna gomutaten neban. Txiroa zan eta jende  
askori dirua zor eutsan.

Ezin eban ordaindu ta ertzaiña etorri zan. Ertzaiñak Micaw-  
ber'tarrak espetxera eroan ebazan. Espetxea London'en egoan, eta  
sarri an ikertzen nebazan.

Gero, Micawber Andrearen senideak Micawber'tarrerri lagun-  
du eutsen. Zorrak ordaindu ezkeru espetxetik urten ziran. Gero  
alkarrekin apaldu genduan.

—Biar Plymouth'era joango gara —Micawber Jaunak esan  
eban—. An bearra dot. Plymouth'en bizi barri ta obe bat asiko dot.  
Baiña zu David itziten zaitugu, ta oso tamala dot. Zuretzat aolku  
bat bai ta ona be daukat. Urtean ogei ogerleko irabaztekotan, ez  
eralgi emeretzi baiño. Ez ogei irabazi ta ogetabat eralgi. Onak  
zorigabekoa egingo zaitu, beraz, ez olakorik egin.

—Eskerrik asko —erantzun neutson— ori aolku ona da.

Urrengo egunean Micawbertarrak joan ziran. Umeeri bezu-  
zak emon neutsezan. Micawber Andreak mosukatu ninduan. Joan  
ziran eta agurtu nebazan. Bakarrik eta guztiz naigabetuta nengoa.

—Orain ez dodaz lagunik —nire buruari esan neutson— Lon-  
don'eri gorroto dautsot.

Gero burutapen bat etorri yatan.

—Iseko Betsey Trotwood'gana joango naz.

Peggotty'ri idatzi ta dirua eskatu neutson. Txin bat bialdu eus-  
tan. Eskutitzan iseko Dover'en bizi zala esanten eustan.

Larunbatan bide-zorroa artu ta etxetik urten nintzan. Gazte  
batek kaletik gurdia erabillan.

—Arren, nire bide-zorroa eroango daustazu? —itaundu neutson.

—Nora?

—Dover'ko gurdiraño mesedez. Dover'era gurdiz noa.

Nire bide-zorroa gurdi-ganean bota eban. Gizon gazte zakarra zan, eta ez yatan atsegin. Txifia agoan sartu neban.

—Orain ezin daust kendu —otu yatan.

Gero zeozer gogoratu neban.

—Gurdia gelditu mesedez —esan neutson— zorroan ez dot zuzenbiderik idatzi. Orain idatzi gura dot. Gelditu mesedez.

Gurdia kale bakarti baten gelditu zan.

—Zer da au? —gazteak deadar egin eustan— bide-zorroan ez dago izenik. Ez da zure zorroa!

—Bai da! —oiu egin neutson.

Txifia lurrera jausi yatan.

—Txin ori be ostu dozu! —gazteak esan eustan— orain txifia nirea da!

Ariñeketan gurdiarekin alde egin eban. Gurdiaren atzetik oldartu nintzan, baiña ezin artu.

Ez neban dirurik Dover'ko gurdirako. Beraz, Dover'erako bidea topau neban eta arantz bideratu nintzan.

—Ez daukat dirurik —nere buruari esan neutson—. Jateko dirurik bear da. Zeozer saldu bear. Jakea salduko dot.

Denda batera joan nintzan.

—Jake bat erosi gura ete dozu? —gizon bateri esan neutson.

—Zenbatean?

—Shilling bat eta sei peniketan —esan neutson.

—Ori asko da —erantzun eustan— bederatzi penike emongo datzudaz.

Jakea emon neutson, eta bederatzi penikeak artu nebazan.

Diru orregaz janaria erosi, ta aurrera jarraitu nintzan. Gero gaua etorri ta landa baten lo egin neban.

Urrengo eguna Igandea zan eta Chatham'era eldu nintzan. Chatham London aldeko uria da. Ia utsik egoan ta poztu nintzan. Oso zikiña nengoan eta ez neban jenderik ikusi gura. Barrero kanpoan lo egin neban.

Urrengo goizean oso goseturik aurkitu nintzan. Orduan jake-azpikoa saldu neban, baiña ez neban diru askorik artu. Aurrera niñoa ez nebazan prakak eta arkondara baiño erabilten. Nekatu ta, loi ta atsegabetuta niñoa.

Azkenik, Dover'era eldu nintzan.

—Trotwood Andereñoa ezagutzen al dozu? —gizon bateri itaundu neutson.

—Ez —erantzun eustan— oa ortik!

Denda batera joan nintzan.

—Kanpora! —jendeak deadar egin eustan— zikin ori!...

—Mesedez —eskatu neutsen— Trotwood Andereñoa ezagutzen ete dozue?

—Bai —neska batek esan eustan— suerte onekoa zara. Bere neskamea nozu.

Isekoaren etxera lagundu ninduan.

—Itxon kanpoan —esan eustan— eskalea al zara?

—Ez —erantzun neutson— ez naz eskalerik.

—Eskalea deritxazu.

Etxean sartu zan. Gero, iseko urten zan.

—Zer nai dozu? —itaundu eustan— kanpora! Mutil zikiñak ez ditut maite.

—Mesedez iseko —esan neutson— zure loba nozu. Zure loba David Copperfield.

—Zer? —oiu egin eban.

Lurrean jesarri zan.

—Au bai arrigarria! —deadar egin eban—. Sartu barrura! Sartu zaitex etxean.

Etxean gengoazala, isekok begiratu ninduan.

—Oso zikin zagoz. Bustialdi bat artuko dozu.

Bustialdia izan neban, eta alkarrekin apaldu genduan. Neska meak nere jantziak erre ebazan, eta barriak emon eustazan. Murdstone Jaunari buruz berba egin genduan.

—Beragana barrero joan bear dot?

—Ez dakit —isekoak esan eustan— biar esango dautzut. Orain zoaz oera.

## 6'GN ATALA

Urrengo goizean isekoa nerekin zala, gosaltzen ari nintzan. Ez eustan barbarik egiten. Ez nintzan nasai aurkitzen. Gero, esan eustan:

—Murdstone Jaunari idatzi dautsot.

—Bai? —erantzun neutson.



Zeozter izututa aurkitzen nintzan.

—Laister etorriko da ona —esan eustan.

—Berarekin eroango al nau?

—Ez dakit —esan eustan—. Zure gosaria amaitu dozu?

—Bai.

—Egun ederra da —isekok esan eustan— zoaz kanpora jolas-  
tutera.

Egun batzuk geroago, biok jesarrita leiotik kanpora begira-  
tzen genduan. Beste aldean baratza egoan. Eguzki-pean ederra  
eritxan.

Alako baten, iseko jagi zan.

—Janet! —oiu egin eban.

Janet neskamea zan.

—Asto bat baratzen dago, bedarra ondatuko dausku.

Gelatik urten zan.

Murdstone Andereñoa asto baten gainean etorran, baiña ise-  
kok ez eban ezagutzen. Astoagana arindu zan, eta alde batera bul-  
zatu eban.

—Nere bedarratik kanpora! —deadar egin eban—. Zu emaku-  
me zakarra zara! —Murdstone Andereñoari esan eutson—. Au  
nere bedarra da, ez egizu zapaldu!

Ni be kanpora urten nintzan.

—Iseko, Murdstone Andereñoa da.

—O! isekok esan eban asarrezko itxuraz—. Sartu zaitez etxean.

Danak jarraitutakoa, etxean sartu zan.

Murdstone Jauna ta bere arreba jesarri ziran. Isekok begira-  
tzen ebazan.

—Beraz, zu nire lobearen alargunarekin ezkondu zintzazan  
—esan eutson—. Mutiko gaixoa!

Murdstone Jauna oso asarratuta eritxan. Begiratu ninduan.

—David mutil gaiztoa da —esan eban—. Ez dauka dirurik. Idaz-  
tola batean sartu neban, eta zer egin eban? Neuganako eskertsua  
izan bear, baiña ez eustan eskerrik emon. Iges egin eban. Dirua ira-  
bazi bear, beraz idaztolara biurtu egin bear dau.

—Ez iseko ez! —oiu egin neban— lekuari gorroto dautsot.

—Gaur bertan idaztolara biurtu bear dau —Murdstone Jaunak  
esan eban— biurtu edo ez dot geiagorik ikusiko. Ez dautsot lagun-  
duko, ez eta barbarik esango be. Ez dautsot dirurik emongo.

—Ez dautsozu lagundu! —esan eutson isekok asarratuta—.  
Emen geratu daiteke. Orain urten zaiteze.

—Joango naz —Murdstone Jaunak erantzun eutson—. Baiña  
burubakoa zara. Mutil gaizto ta zakarra da.

—Eta zu gizon gaiztoa, Murdstone Jauna —isekok otz-otz esan  
eutson— David'en amarekiko gogorra izan zara. Oso zorigaizto-  
koa biurtu zenduan. Zu ta zure arreba biotzbakoak zarie. David  
eta bere amarekiko errukibakoak izan zintzazen. Jende okerra  
zarie.

—Zu emakume oso latza zara! —Murdstone Andereñoak dea-  
dar egin eutson.

—Ixildu zaitez —erantzun eutson isekoak—. Urten zaiteze  
nere etetik. Zuaze kanpora, ta asto baten ganean ez barrero neu-  
re bedarra zapaldu.

Asarrez beterik Murdstone'tarrak joan ziran.

—Au zure etxe barria da David —isekok esan eustan— emen  
betiko geratu zaitezke.

—Eskerrik asko iseko, eskerrik asko!

Mosu bat emon neutson.

—Begira —esan eustan— orain ez dozu lanik egin bear. Baiña  
ikastolara barrero joan bear dozu. Ara, Canterbury'n ikastolara  
joango zara. Wickfield Jauna an ikertuko dogu.

—Wickfield? —erantzun neutson— nor da bera?

—Legegizona dozu —esan eustan—. Legegizon zuurra ta gai-  
ñera nire laguna da. Neure dirua darabil. Ikastolari buruz bere  
aolkua emongo dausku.

Isekoren gurdian Canterbury'ra joan eta Wickfield Jauna-  
ren idaztola aurrean gelditu gintzazan. Leiotik aurpegi bat gure be-  
gira egoan. Urian Heep'en aurpegia zan. Wickfield Jaunaren idaz-  
mutilla. Idaztolatik urten zan. Zaldiaren buruari eutsi eutson.  
Wickfield Jaunaren aurrean aurkitu gintzazan. Ule zuriduna zan;  
lodi ta aurpegi gorrikoa.

—Egunon Trotwood Andereñoa —esan eban—. Zertan lagun-  
du dagikizut?

—David'entzat ikastola bear dot —isekok erantzun eutson—.  
Ikastolaren on bat ezagutzen ete dozu?

—Bai —erantzun eutson—. Biar ara joan daiteke.

—Biar? Non geratuko da gaur?

—Emen bertan —erantzun eutson Wickfield Jaunak.

Iseko joan zan, eta Wickfield Jaunaren etxean geratu nintzan.  
Arratsaldean idaztolara joan nintzan. Uriah Heep egoan. Askon-  
tan begiratzen ninduan baiña ez eban ezer esan. Oso argala zan



Au Agnes da, Wickfield Jaunak esan eustan.

eta jantzi baltzak erabillazan. Ez yatan atsegin. Etxera joan zanean, esan eustan:

—Gabon Copperfield Jauna.

Eskua emon eustan. Argala ta otza zan. Arraiña zirudian.

Wickfield Jauna ta onen alabarekin apaldu neban. Neskatil polita ta paketsua zan. Bere aurpegi narea bereala atsegin yatan. —Au Agnes da —Wickfield Jaunak esan eustan.

Eskutik artu eban eta irribarre egin eutson. Asko maite eban. Urrengo goizean ikastolara joan nintzan. An egun osoa geratu nintzan. Gauean Wickfield Jaunaren etxera biurtu ta danok alkarrekin apaldu genduan. Gero Agnes bere gelara joan zan, eta Wickfield Jaunak berba egin eustan:

—Non geratuko zara David?

—Geratu naiteke emen?

—Bai, baiña leku au aspergarria da. Gazteek geienetan ez dabez toki itunak maite.

—Baiña nik etxe au maite dot —erantzun neutson—. Agnes emen bizi da ta gaztea da.

—Agnes? —esan eustan— aspergarri ete yako? Ez yatan iñoiz bururatu.

Ardoa edaten asi zan, eta ez eban besterik esan.

Uriah Heep idazgelan egoan oindiño ta irakurten ari zan. Ondoratu nintzaion.

—Zer ari zara irakurten? —esan neutson.

—Legeak irakurten ari naz —erantzun eustan—. Au lege-liburua da.

—Legegizona izan gura dozu?

—Bai —erantzun eustan—. Legegizonek diruketak irabazten dabez, ezta?

—Ez dakit—erantzun neutson. —Baiña oso argia izan bear dozu.

—Ez —erantzun eustan— oso apala naz. Nire sendia apala da be. Nire aita il zan eta gizon apala zan. Ama apala da. Baiña ni legegizona izan naiteke. Wickfield Jaunak laguntzen daust. Gizon ona da ta ni zorionekoa naz.

Uriah aulkian biurrikatu zan. Itxusia eritxan. Gizon itxusia zan.

—Agnes Andereiñoa niretzat ona da be. Agnes andereiñoa atsegin yat. Oso polita da ezta?

Bere ordulariari begiratu ta gorputza biurrikatu yakon.

—Orain etxera joan bear dot —esan eustan—. Gure etxea ikusterera etorri bear dozu. Etorri ama ikusterera. Gure etxea oso apala da, baiña etorri mesedez.

—Eskerrrik asko —erantzun neutson— joango naz.

Bera etxera, ta ni oera joan gintzazan. Uriah'tzaz amets egin neban. Bere bildur nintzan.

Ikastola barria leengoatik oso ezbaridia zan. Maitatzen asi nintzan eta laster lagun asko izan nebazan.

## 7'GN ATALA

Egun baten etxera niñoala, Uriah topo egin neban.

—Au nere poza, Copperfield Jauna! Etxera noa. Zatoz nirekin ama ikusteko.

Joatea ez yatan atsegin, baiña berarekin ibiltzen asi nintzan.

—Lege ikasteari emoten dautsozu oindiño? —itaundu neutson.

—Bai, baiña oso zailla da. Liburuetan itz zail batzuk dagoz.

Latiñeraz agertzen dira, ta nik latiñeraz ez dakit.

—Nik latiñeraz ba-dakit —esan neutson— erakutsiko dautzut.

—Ez, Copperfield Jauna —Uriah'k soñia biurrikatu eban— oso apala naz. Jende apalak ezin dau latiñerarik ikasi. Ori jaunentzat da.

Heep Andrea semearen itxurakoa zan. Argala zan eta jantzi baltzak erabillazan. Jesarri nintzan eta gauza asko itaundu eusten. Nire senide ta London'tzaz itaundu eusten. Ez neutsen ezer esan London'ko idaztolari buruz. Wickfield Jaunatzaz eta Agnes'tzaz itaundu eusten.

—Wickfield Jaunak ardo asko edaten dau —Heep Andreak esan eustan—. Ori kaltegarria da ezta?

—Ez dakit —erantzun neutson.

Heep Andrea ez yatan oso atsegiña.

Heep Andreamen etxeko atea zabaldu zan. Gizon bat agertu, ta atean geratu zan.

—Copperfield neure mutilla! —oiu egin eustan—. Zu zara, ezta?

Micawber Jauna etxean sartu zan. Uriah ta Heep Andreatzaz itz egin neutson, eta alkarrri eskuak emon eutsoen. Ez nengoan nasai. Bildur nintzan nire lengo bizieratzaz berba egin egiala. Ez yatan atsegin Heep'tarrek au ezagutzea. Jauntzat artzen ninduen.

Baiña ez eban London'tzaz itzik esan. Micawber Andreatzaz berba egin eban. Gero bere ostatura biurtu zan. Berarekin apal-tera dei egin eustan.

—Zatoz biar —esan eustan.

Urrengo egunean Micawber Jauna kalean topo egin neban. Uriah'rekin joian, eta ez ninduen ikusi. Alkarrizketan joiazan, eta oso adiskedeak eritxoan. Gau aretan apaldu bitartean, Uriah'tzaz itaundu neutson.

—Gizon argia da —esan eustan— atsegin yat.

Micawber Andreak Plymouth'tzaz itz egin eustan.

—Neure sendiak Micawber Jauna ez eban maite —esan eustan—. Zor asko eban, beraz Canterbury'ra etorri giñan. Micawber Jaunak emen lana idoroko dau. Ganera diru apur bat itxaroten dogu. Laster elduko da.

Apari ona izan genduan, eta amaitu ta gero, ardo beroa edan genduan. Micawber Jauna zorionsua zan, eta abestu genduan.

Urrengo egunean baiña, idazki bat artu neban. Olan iñoan: «Dirurik ez da eldu. Diruketa bat zor dot Canterbury'n. Gaur alde egin bear. Tamala dot. Agur «Micawber Jaunak».

Ikastolan alegindu nintzan eta urteak arin igaro ziran. Sarri askotan Wickfield Jauna ta Agnes ikusten nebazan. Agnes beti paketsu ta maitekorra zan, eta asko maite neban. Arreba antzekoa yatan. Baiña Wickfield Jaunak ez eban lan askorik egiten. Ardo lar edaten eban. Uriah ordea, lan gogorra egiten eban, eta Wickfield Jaunaren lanari buruz asko ekian.

Azkenik, ikastaldia amaitu neban.

—Zer egingo dozu orain? —isekok itaundu eustan.

—Ez dakit. Lan egiten bururatu yat. Baiña zelango lana egingo dot?

—Ara nik esan —isekok erantzun eustan—. Artuizu opor bat. Gero pentzaizu lan egiten. Ikertu egizu Peggotty.

—Bai. Yarmouth'era joango naz.

Lenago baiña London'era jo neban. Gurdi batean joan nintzan. Jantzi barriak nerabillazan, bai ta dotore eritxi be. Jaun baten antzera ta zorionsua oartzten nintzan.

Ostatu baten genditu nintzan. Maian jesarri ta aparria eskatu neban: Orduan gazte bat ikusi neban. Apaltzen egoan baiña ez ninduan ikusi izan. Beragana joan nintzan.

—Gomutatzen nozu? —itaundu neutson.

—Ez, ez dot uste...

Orduan deadar egin eban:

—Copperfield!

Steerforth zan barriro.

Urrengo goizean alkarrekin gosaldu genduan.

—Ez zara aldatu —Steerforth'ek esan eustan. —Oindifio oso gazte emoten dozu. Zatoz nirekin etxera. Etorri ta gurean geratuko zara.

—Baiña Yarmouth'era noa —esan neutson.

—Ez joan. Geratu zaitetz nirekin gaur eta biar. Gero Yarmouth-era joango zara.

Barre egin neban.

—Ezin dot zeuri «Ez» esan, Steerforth. Zurekin geratuko naz.

Highgate'n eban bere etxera joan gintzazan. Leku au London'en ondoan dago. Steerforth'en ama emen bizi zan. Andre garaia, zeozer zarra ta artoa zan. Rosa Dartle berarekin bizi zan. Au be artoa zan. Neska bereizia zan, eta bere ondoan nasaibakoa oartzen nintzan. Begi ankerrak ebazan, eta aurpegian orban bat eukan. Orban abo-ondoko ezaugarri itsusia zan.

Yarmouth'eko jendeari buruz berba egin genduan.

—Gure antzekoa ete dira? —Steerforth Andreak itaundu eustan.

—Ez —erantzun eutson Steerforth'ek— zakarrak eta zeozer basatiak dira.

Nik ez neban uste au egia zanik. Ango neure lagunak ez ziran zakarrak. Baiña ez neban gauzarik esan. Gero Rosa Dartle'tzaz Steerforth'eri itaundi neutson. Goibel eta asarratuta eritxan.

—Nik egin neutson.

—Noiz?

—Mutikoa nintzala. Gauza bat bota neutson eta agoan zauritu. Benetan tamala izan neban.

Egun batzuk an egon nintzan. Yarmouth'era joan nintzanean, Steerforth nirekin etorri zan.

Steerforth ostatuan itzi, ta Peggotty ikustera joan nintzan. Barkis'en etxera eldu nintzanean, Peggotty an egoan. Berak ni ezagutu ez. Arrituta begiratu ninduan.

—Peggotty —esan neutson— asko aunditu ete naz? Ez nozu ezagutzen?

—David! —deadar egin eban— oi neure David laztanal!



Ham'ek Emily'ren eskuari eusten eutson.

Besarkatu ninduan eta negar egin eban. Gero malkoak txukatu ta Barkis'gana joan zan. Ez zan ondo aurkitzen ta oean egoan. Peggotty'ri diru emon eutson eta aparti ona izan genduan. Gero, Steerforth eldu zan. Barre asko egin eban, eta Peggotty pozik egoan.

Ordubete bat igarorik, Barkis'en etxetik urten eta Peggotty Jaunarenara joan gintzazan. Peggotty Jaunaren barre ta deadarrak entzun genduzan, eta sartu gintzazan. Ham'ek Emily'ren eskuari eusten eutson. Onen aurpegia gorri-gorria egoan eta lurrera begiratzen eban.

—Aurrera! —Peggotty Jaunak oi u egin euskun— zuentzat bari bat daukat. Ham'ek eta Emily'k ezkondu gura dabe!

—Barri ona da —esan eutson Steerforth'ek—. Noiz jakin dozu ori?

—Orain minutu bat dala —Peggotty Jaunak erantzun eutson. Ham berbetan asi zan.

Emily beti maite izan dot. Ba-dakit ni baiño gazteagoa dala, baiña berak «Baietz» esan daust, eta gutziz zoriontsua naz.

Ardao edan genduan danok, bai ta zorionez beterik be. Gizonek berba asko egiten genduan baiña Emily ixillik egoan. Steerforth'eri sarri begirutzen eban. Astia arin joan eta laster berandu egin zan.

—Joan bear dogu —esan eban Steerforth'ek.

Eskuak alkarri emon eta agurtu geuntsen. Steerforth eta biok ostata biurtu gintzazan.

—Tamala dot orre in ezkontza —esan eustan— Emily polita da. Jaun baten andrea izan bear litzake, baiña Ham zakarra ta aspergaria da. Ez da jaun baten antzekoa. Tamala dot.

—Oker zagoz! —esan neutson— Ham gizon ona da. Emily'ren tzat senar ona izango da.

Steerforth'ek eskua besoan ipiñi eustan, eta irribarre bakana urten yakon.

—David, zu be gizon ona zara, baiña ez daustazu ulertzen.

Barkis'en etxean geratu nintzan, eta Steerforth ostatuan. Arraintzaleekin urteten zan eta gitxitan ikusten neban. Gau baten sutondoan bakarrik nengoala sartu zan. Aurpegi goibela erakusan.

—Zer dala-ta? —itaundu neutson.

—Pentzaten egon naz.

—Zer pentzaten?

—Aita il yat —esan eustan— eta bear dot. Aitak zuzenduko litzakit. Amak ez nau zuzentzen baiña. Lardazkauten nau. Ez naz ona ta orrek zorigaiztokoa egiten nau.

—Ez dautzut ulertzen —esan neutson— zeri buruz ari zara?

—Ez da ardurarik —erantzun eustan— orain obeto santitzen naz.

Jagi zan eta irribarre egin eustan.

—Joan gaitezen egurastutera.

Etxetik urten gintzazan.

—Txalupa bat erosi dot —arro-arro esan eustan.

—Yarmouth'en? Baiña oso gitxitan zatoz ona.

—Ham'ek gordeko daust.

—Tira! —esan neutson— ona zara. Txalupa Ham'eri emon dautsozu.

—Ez dautsot emon —erantzun eustan—. Zaintzen daust. «Emily Txiki» izena ipiñi dautsot.

Ez eustan barriro esan zorigaiztokoa zanik. Ondo pasatu neban Yarmouth'en, baiña astia arin joan zan. Azkenengo gaua etorri yakun. Barkis'en etxerantz giñoazan. Ham'ek kanpoan gelditu ginduzan.

—Mesedez ez sartu. Emily emakume batekin berbetan dago barruan. Emakumeak laguntza eskatu dausto.

Peggotty'k atea zabaldu euskun.

—Sartu zaitekeze orain.

Emakumea Emily'ren ondoan jesarrita egoan. Bere izena Martha Endell zan eta negarrez ari zan.

—Gaiztoa izan naz —esan eban— aita-amak ez nabe maite. Yarmouth'eko jendeak gorroto dauste. Yarmouth itzi ta London'era joan egin bear dot. An obeto biziko naz.

—London'en zer egingo dozu? —Emily'k itaundu eutson.

—Lana topako dot. Baiña diru bear dot.

—Eman daukazu dirua —esan eutson Emily'k— London'era joan zaitekez.

—Eskerrik asko. Oso ona zara. Gogoan beti izango zaitut.

Etxetik urten zan. Emily'k atea itxi eban joan zanean. Aurpegi naigabetsua eban, eta negarrez asi zan.

—Martha langoa naz —esan eban—. Ni be gaiztoa naz.

—Zu? —Ham'ek erantzun eutson—. Zu ez zara okerra. Ederra ta ona baiño.

—Ez naz ona. Zorigaiztokoa nozu. Ham lagundu egiztazu mesedez. Obea izan gura dot.

Ham'ek besoakaz inguratu eban, eta laster nasaitu zan. Steerforth bezela berba egiten eban. Ez nebazan orduan ez Steerforth ez Emily ulertzen. Gero ulertu nebazan.

## 8'GN ATALA

London'era biurtu gintzazanean, isekok lana topau izan eustan. Milla libra Spenlow ta Jorkins'eri ordaindu izan eutsezan. Legegi-zona izaten gura neban, eta Spenlow Jaunak Legegintza erakutsiko eustan. Isekok gelak topau eustazan be. Crupp Andreak gelen jaubea zan. Emakume lodia ta ona. Gelak garbitzen eustazan, eta jatekoa atontzen eustan.

Baiña London toki bakartia da, ta ni geletan bakartia aurkitzen nintzan. Steerforth'ek ez ninduan ikertzen, eta ez neban lagunik. Baiña egun baten topo egin neban. Kalean gengoan eta alboan lagun bi ebazan. Nire bizi-lekuaren zuzenbidea emon eta apaltzera dei egin neutsen.

Apari ona izan zan, baiña zoroa izan nintzan. Ardao asko edan neban moskortu arte. Orduan are zoroagoa biurtu nintzan.

—Antzokia leku ona da —deadar egin neban— goazen ara!

Antzokira joan gintzazan. Ezin neban zutunik egon, eta Steerforth'en lagunek besoetatik oratzen ninduen. Euren laguntzaz sartu nintzan.

—Jesarri gaitezen emen —esan eban Steerforth'ek.

Nire aulkian jesarri ta barre egin neban.

—Oi! —nire ondoan batek esan eban.

Neska bat nire ondoan egoan eta begiratu neban, baiña edanda nengoanez, ez neban ondo ikusi.

—David! —neskak oi u egin eban.

—Agnex! —erantzun neutson.

Ezin neban bear dan lez barbarik egin.

—Zelako ezustea!

—Oi David —esan eustan Agnes'ek—. Au zorakeria da. Mese-dez joan etxera, ta oeratu zaitetz.

—Bai —erantzun neutson— bai, alan egingo dot.

Antzokitik urten nintzan. Urtetean zarata aundia egin neban, eta jendea barre egin eban. Steerforth'ekin etxera joan nintzan, eta oera lagundu eustan.

Urrengo egunean oso larri aurkitu nintzan. Agnes gogoratzean lotsatu nintzan, baiña berak eskutitz bat bialdu eustan. Olan iñoan: «Zatoz ni ikusten. Waterbrook Jaunaren etxean nago».

Lotsaz beterik nengoan eta ez neban Agnes ikusi gura, baiña etxe aretara joan nintzan. Agnes ez egoan asarraturik. Ikusi nindueanean, irribarrez esan eustan:

—Egunon David.

—Oi Agnes —erantzun neutson— lotsaz beterik nago. Antzokian moskortuta nengoan. Zoroki jokatu neban. Barkatu egidazu arren! Tamala dot.

—Barkatu dautzut. Antzokikoa ez bururatu. Ez larritu. Lagun gaiztoa dozu.

—Lagun gaiztoa? Nor da bera?

—Steerforth —erantzun eustan—. Ez da gizon ona.

—Oi Agnes, ona da. Neure lagunik onena da!

—Tamala dot —Agnes'ek erantzun eustan—. Ez yat atsegin.

Irribarre egin eustan.

—Barkatu egiztazu. Gogorra izan naz.

—Ez, ori ez da egirik —erantzun neutson— baiñan ez dagigun Steerforth'tzaz barbarik egin.

—Ez, ez dagigun —Agnes'ek erantzun eustan— David, Uriah ikusi ete dozu?

—Ez. Uriah Heep? London'en ete dago?

—Bai —aurpegi naigabetuaz erantzun eustan— Uriah'k orain aitaren arazo erdia jabetzen dau. Ez zenekian ori?

—Ez! —deadar egin neban— Uriah? Ez da egirik izango!

—Bai. Aitak beti ardao asko edan dau ta ezin egikean arazoa erabilli. Uriah'k laguntzen eutson. Aitak Uriah'ren laguntasunan benetan bear eban. Olan ba Uriah'ri erdia emon eutson.

Agnes orduan negarrez asi zan.

—Uriah Heep! —esan neutson—. Txakur ori! Ez yat iñoiz gogokoa izan! Baiña Agnes arren, ez negarrik egin!

Agnes'ek begiak txukatu ebazan. Gero, Waterbrook Andrea sartu zan. Eskua emon eustan.

—Apaltzera geratuko zara, Copperfield Jauna? —itaundu eustan.

—Bai, eskerrik asko.

Apaltzera jende asko etorri zan. Apari oso goibela izan zan. Jendeak ez eusten barbarik egiten, eta Agnes'gandik urruti nengoan. Uriah Heep maiean egoan, baiña ez nire aldean. Orduan «Tradles» izena entzun neban.

Nire antxiñako laguna zan. Urreratu nintzaion, eta ikastolari buruz berba egin genduan. Agnes'eri beratzaz berba egin neutson. Oso pozik nintzan bera ikusteagaitik.

Apaldu ta gero, Uriah nigana etorri zan. Nirekin egurastuten gura eban. Ez neutson ezetz esan. Bere bildur nintzan. Kalean bera egurastu gintzazan, eta Wickfield Jaunatzaz itaundu neutson.

—Geixorik egoan —esan eustan Uriah'k—. Ba-dakizu, larregi edaten dau. Dirua galdu eban, eta laguntza bear. Agnes Andereiñoari lagundu gura neutson. Polita da, ezta? Noiz eta norekin ez-konduko da?

Irribarre itsusia aurpegiari agertu yakon. Ba-nekian berarekin ezkondu gura ebal. Guztiz aserraturik nengoan, baiña ez neban ezer esan. Orain Wickfield Jaunari ta Agnes'eri kalte egin eikioen. Beraz, ez neban barbarik esan.

Ez nintzan baiña askotan urten apaltzeko, eta geienetan bakarririk nengoan. Steerforth Oxford'en egoan, eta Traddles ez neban barriri ikusi. Egunerok idaztegiara niñoan, eta Spenlow Jaunarekin, legeak ikasten nebazan.

Bein baten esan eustan:

—Copperfield Jauna, Larunbatan neure etxera etorriko al zara? London'ko inguruetan bizi gara.

—Eskerrik asko.

—Geratu zaitetz gabeen, Geratu Larunbata ta Igandean.

—Bai atsegiña izango dala!

—Biok neure gurdian joango gara —esan eustan.

Larrunbatan, Spenlow'en etxera joan gintzazan. Etxe ederra ta baratz aundiduna zan. Gela batera sartu gintzazan. Emakume bi egozan, baiña nik ez neban bat baiño ikusi. Ederra zan.

—Au Dora nire alabea da, Copperfield Jauna—esan eustan Spenlow Jaunak— eta au Murdstone Andereiñoa da. Neure alaba zaintzen dau.

—Lendik ezagutzen dot Murdstone Andereiñoa. Zelan zagoz Murdstone Andereiñoa?

—Ederto, eskerririk asko —erantzun eustan.

Baiña ez negikean Murdstone Andereiñoa kontuan artu. Gogoan Dora bakarririk neukan. Maite neban. Niretzat eguzkia lakoa zan. Ezin neban bera baiño ikusi.

Dora gogoan nebala, neure gelara joan nintzan. Bere ulea ederra zan, eta aurpegia ederra be. Jesarri nintzan, baiña ez neban gela ikusi, Dora'ren aurpegia baiño.

Apaltzera joan nintzan, baiña ez neban gauzarik jan. Inguru-koek berba egiten eusten, baiña nik entzun be ez. Dora'ri baiño ez neban begiratzen.



Dora an zan.

Aparia amaitu ta gero, jendea joan zan. Murdstone Andrei-  
ñoak berba egin eustan.

—Copperfield Jauna?

—Bai, Murdstone Andreiñoa.

—Ez zaitut maite —esan eustan—. Zure isekoa ez dot maite,  
Zuk ez nozu maite.

—Ori egia da.

—Baiña etxe onetan zuurrak izango gara —esan eustan.

—Bai, olan izango gara. Ez dogu burrukarik egingo.

—Ez dogu burrukatuko —esan eustan—. Ni ondo ikasia naz,

—Gabon, Murdstone Andreiñoa.

Oera joan nintzan, eta Dora'tzaz amets egin neban. Amets  
ederrak izan nebazan. Urrengo goizean jagi ta baratzatik egurastu  
nintzan. Dora an zan.

—Egunon —esan eustan.

—Alan ekarri —erantzun neutson—. Orain gitxi dala, Prantzi'n  
izan zara, ezta Dora Andreiñoa?

—Bai, oraintxe Ingalanderra'ra biurtu naz. Prantzi'n izan  
ete zara?

—Ez —erantzun neutson—. Nik emen egon gura dot, Ingalan-  
derra'n.

—Ingalanderra'n egon? Zergaitik?

—Zu emen zagoz. Ingalanderra'n zagoz.

—Oi Copperfield Jauna! —aurpegi gorritz erantzun eustan.

Baiña barre egin eban. Txakur txiki bat eukan. Txakurrari  
berba egin eutson.

—Copperfield Jaunak gauza politak esaten dauz, ezta Jip? Eto-  
rri Copperfield Jauna, ikusi dagiguzan loreak.

Baratzatik bideratu ninduan. Dorak loreeri begiratu, ta nik  
Dora'ri. Loreak baiño politagoa zan.

—Murdstone Andreiñoa, zure adiskidea al da? —itaundu  
eustan.

—Ez.

—Poztuten naz. Ez dot bera maite. Beti nire atzetik dabil,  
neuri begiratuaz.

Gero txakurrari musu bat emon eutson.

—Ez da olan, Jip?

Alkarrekin berba egin genduan, eta gero Murdstone Andrei-  
ñoa agertu zan.

—Egun-on —esan eban— zatoz etxera gosaria artzeko.

Igande a beti gogoan izango dot. Niretzat egun zorionsua  
izan zan. Dora'kin jesarrita berba egin neban. Murdstone Ande-  
reiñoa an egoan, baiña nik konturatu ez. Ezin eban ni zorigaiztkoak  
egin.

London'era biurtu nintzanean, naigabetuta nengoan. Sarri as-  
kotan kalean gora ta bera nenbillan. Dora ikusi gura neban. Bein  
baten, bere gurdian ikusi neban. Eskuz agurtu ninduan, eta zorio-  
nez bete nintzan.

Crupp Andreak esan eustan:

—Copperfield Jauna, bestelatu zara.

—Benetan?

—Bai. Ez zagoz ondo ala?

—Oso ondo nago.

—Nik gazteak ezagutzen dodaz —Crupp Andreak esan eustan—.  
Neska polit bat topau dozu, Copperfield Jauna. Maitemindu zara.

## 9'GN ATALA

Bakarrik sentitzen nintzan, eta Iraddles ikertu neban. Kale  
erkiñeko etxe txiki batean bizi zan. Atea zearkatu ta zurubian  
gora joan nintzan. Txiliña jo, ta Traddles urten zan.

—Copperfield, lagun maite ori! —deadar egin eustan—. Zatoz  
barrura. Au bai atsegiña. Es dot askotan ikerlerik. Illabete onetako  
ikerle bakarra zara.

Bere gela oso txikia zan. Mai txiki bat egoan luma ta ingiakaz.

—Zertan ari zara? —itaundu neutson.

—Legeak ikasten nabil —erantzun eustan—. Ikastola itzi ne-  
banean, ez neukan dirurik. Olan ba jo ta ke lanari ekin neutson,  
eta diru apur bat irabazi. Lege-gizon bateri emon neutson. Lege-  
gintza erakutsiko daust. Legegizona izan gura dot.

—Noiz amaituko dozu? —itaundu neutson—. Noiz izango zara  
legegizona?

—Ez dakit. Asti luzea bearko dot —itxura naigabetsua eban—.  
Ezkodu gura dot, baiña Sophi ta biok itxaron bear dogu.

Gero, zorionsuagoa biurtu zan, eta barre egin eban.

—Baiña neska ona da. Polita ta maitekorra ganera. Itxaron  
dagikeyu. Asko maite dot eta berak maite nau.

—Poztuten naz —esan neutson.

—Au ez da gela politarik. Baiña merkea da ta auzokoak atse-  
giñak dira.

—Eup!... —kanpotik dei egin eben.

—Nor da? —itaundu neutson.





Eskutitz bat emon eustan.

—Nire auzokoa da —Traddles'ek esan eustan—. Bere izena Micawber da.

Micawber Jauna gelan sartu zan.

—Copperfield, neure mutilla!

Eskuak artu eustazan, eta begiratu ninduan.

—Zelan zagoz, Micawber Jauna? —itaundu neutson.

—Oindiño txiroak gara —esan eustan— baiña lagun oso ona daukagu emen. Traddles Jauna. Laster dirurik izango dogu. Beti itxaroten dogu.

Eta zorionez beterik barre egin eban.

Pozik nintzan Micawber Jauna barriro ikusteagaitik. Traddles eta Micawber nire etxera dei egin nebazan. Apaltzera etorri ziran. Micawber Jaunak ardao ta igaliakaz edari bat atondu euskun. Lanpetuta egoan eta abestuten eban. Edaria gozoa izan zan. Gero aparia izan genduan. Ez zan ona.

—Crupp Andreak ez dau okela au ondo atondu —esan neutsen... gordiñik dago. Tamala dot.

—Ez larritu Copperfield —Micawber Jaunak esan eustan—. Ez larritu okelagaitik. Zatitu, ta gero erreko dogu.

Okela barriro erre eban, eta oso gozoa gertatu zan. Ardao geiago edan eta abestu genduan. Aldiune oso atsegiña izan zan.

—Zein da orain zure lanbidea? —Micawber Jaunari itaundu neutson.

—Ez dot lanbiderik. Baiña laster izango dot.

—Ez al dozu dirurik maileguz artu?

—Bai. Maileguz artu dot —erantzun eustan— baiña gastau be.

Aurpegia illundi yakon, eta gero irribarre egin eban.

—Gazte ederra gertatu zara. Ezkonduko zara? Neska politaren bat ezagutzen ete dozu?

—Bai, ezagutzen dot.

—Poztuten naz —erantzun eustan—. Politia ete da?

—Oso ederra da.

Berandu egin zan, eta joan ziran. Micawber Andrea ta Traddles urten ziranean, Micawber Jauna nirekin geratu zan. Eskutitz bat emon eustan.

—Ez irakurri orain —esan eustan—. Ni joan eta gero irakurri egizu.

—David —batek esan eustan— etxean zagoz?

Steerforth zan. Gelan sartu zan.

—Ezustean etorri naz.

Barre egin eta maira begiratu eban.

—A! —esan eustan— lagun arteko aparria izan dozu. Zu beti jolasean.

—Bai. Aspaldiko lagunak ziran. Traddles gogoratzen ete dozu?

—Traddles? —esan eustan— ez, ez naz gogoratzen.

—Gurekin ikastolan izan zan.

—A! bai. Traddles. Mutil zoroa zan.

—Nondik ibilli zara? —itaundu neutson.

—Yarmoth'en izan naz. Emily ta Ham laster ezkonduko dira. O! eskutitz bat zuretzat daukat. Peggotty'rena da. Barkis oso gaixorik dago. Ilten ari da.

Eskutitza irakurri neban.

—Peggotty oso naigabetuta dago —esan neutson— Yarmouth'era joan bear dot. Ni ikusi gura dau.

—Zatoz Highgate'ra aurretik —Steerforth'ek esan eustan—, Zatoz ama ta Rosa ikustera. Eurek zu ikusi gura dabe.

—Yarmuth'era joan egin bear dot.

—Baiña zatoz Highgate'ra lenengo.

—Ondo dago —erantzun neutson.

—Etxera joan bear dot orain —esan eustan Steerforth'ek.

Bere itzak urduri ta atsekabetuak ziran.

—Zatoz nirekin egurastutera.

Steerforth'ekin urten nintzan. Kaleetatik ibilli ta berba egin genduan. Bera urduri ta zeozer mozkor egoan urrean. Gero agur egin eta gelara biurtu nintzan. Emen, Micawber Jaunaren eskutitza irakurri neban. Olan iñoan: «Cooperfield maitea. Neure dirua galdu dot. Traddles'ek maileguz emon eustan, eta onen dirua galdu be. Orain dirurik ez daukot. Traddles'eri kalte egin dautsot. Ez naz gizon ona. Tamala dot, eta lotsa naz. Ez zaitut barriro ikusiko. «Wilkins Micawber».

Traddles'gaitik damu neban, eta Micawber Jaunagaitik be.

Mr. Spenlow'eri oporrak eskatu neutsozan, eta Highgate'ra joan nintzan. Rosa Dartle ikusi neban.

—Steerforth oso ondo ezagutzen dot —esan eustan—. Orain guztiz urduri ta bestelaturta dago. Zer dabil? Zer egin dau Yarmouth'en?

—Nik ez dakit —esan neutson.

—Oraingoa oso bakana da. Ez yat atsegin.

Gau aretan alkarrekin apaldu genduan.

—Rosa zergaitik ain atsekabetuta? —Steerforth'ek itaundu eustan—. Ez larritu. Abots polita daukazu. Abestu guretzat.

Rosa'k abestu eban. Abesti bakana izan zan. Amaitu ebanean, Steerforth beragana joan zan.

—Ederra izan da —esan eustan, uleak ukututen eutsola.

—Ez ni ukutu! —deadar egin eustan— ez ni ukutu!

Eta gelatik ariñeketan urten zan.

—Zer dala-ta? —itaundu neutson Steerforth'eri.

—Ez dakit. Rosa askotan olan jokutzen dau.

—Biar goizetik jagi bear dot. Orain agurtuko naz.

—Gabon David —Steerforth'ek irribarrez esan eustan—. Gogoan izan nagizu. Ez naz benetan gaiztoa. Gogoratu au.

Bere irribarrea atsekabetua zan.

—Bai, gogoan beti izango zaitut. Neure lagunik onena zara.

Yarmouth'era joan nintzan, baiña berandu. Eldu nintzanerako Barkis il izan zan.

## 10'GN ATALA

Barkis'en illetara joan nintzan. Egun oso otza zan, eta jende gitxi egoan. Illetak amaitu ta gero Peggotty'ren etxera joan nintzan. Barkis gaixoa gogoan neban. Diru asko aurreztuta eukan. Iru milla librak aurrezturik ebazan. Milla libra Peggotty Jaunari itzi eutsozan, eta beste bi milla bere alargunari, Peggotty'ri neure adiskide maiteari.

Gaua otz eta ezoa zan baiña Peggotty Jaunaren etxea, bero ta goxoa zan. Su aundi bat erretzen zan, eta leioan krisaillu bat egoan. Gummidge Andrea baiña ez zan oindiño zorionsua. Keixu zan bakarrik egoala.

—Ez larritu —Peggotty Jaunak esan eustan— Emily laster etorriko da.

Atea zabaldu zan, Ham sartzen zala. Bakarrik etorran. Txano aundi bat erabillan, eta ez genduan bere aurpegia ikusi al.

—David Jauna —esan eustan— mesedez, zatoz kanpora.

Etxetik kanpora jarraitu neutson.

—Zer dala-ta? —itaundu neutson.

—Emily da.

—Emily? —deadarka esan neutson— geixorik ete dago?

—Ez, ez dago gaixorik. Joan da.

—Joan? Nora?

—Iges egin dau —au esatean Ham'ek aurpegia alboratu eban—. Zer esan dagiket Peggotty Jaunari? Zelan esango dautsot?

Peggotty Jauna etxetik urten zan. Ham'en eta neure aurpegi zuriak ikusi ebazan.

—Ham! —oiu egin eban— Emily. Non dago Emily?

Orman eutsi zan. Biok barrura lagundu geuntson.

—Emen eskutitz bat dago, David Jauna —esan eustan Ham'ek—. Irakurri egizu. Nik neuk ezin dot barriro irakurri.

Eskutitza oso laburra zan. Olan ifioan: «Emendik alde egin dot. Ba-dakit txarto dagola. Ez naz barriro biurtuko. Gogoan gorde nagizue ta parkatu egidazue. Ezin naiteke Ham'ekin ezkondu, baiña zuek danok maite dodaz. Damu dot. Emily.

Peggotty auklian nekez jesarri zan. Aurpegi gorria eban eta asarratuta egoan.

—Nor da gizona? —deadar egin eban— Nor da bera? Esan egitzazue! Jakin gura dot!

—Steerforth —ixiltsu esan eutson Ham'ek— Steerforth'ekin joan da.

—Steerforth! —oiu egin neban— eta nik neuk etxe onetara ekarri!...

—Emon egitzazu jakea —Peggotty Jaunak esan eban.

—Nora zoaz baiña? —itaundu eutson Gummidge Andreak.

—Emily topatzera noa! Steerforth'en txalupa apurtuko dot, eta munduan zear joango naz. Topau bear dot.

—Noiz joan ziran? —Ham'eri itaundu neutson.

—Gaur gauean. Steerforth'en gurdian joan dira.

—Ez Daniel —esan eutson Gummidge Andreak— ez joan orain. Asarratuta zagoz, ta kalte egingo dautzu. Entzun, goibel eta neka-garri izan naz, ori ondo dakit. Ez naz zuretzat laguntzarik izan. Baiña lagunduko dautzut, eta ez naz barriro nekagarririk izango. Baiña entzun, geratu zaitze gaur emen.

Peggotty Jaunaren besoa artu eban, eta jesarri-arazo eban. Gizonak eskuak buruan ipiñi ebazan eta negarrez asi zan. Ezin negikean lagundu, ta ostatura biurtu nintzan. Buruan izen bat nerabilan: Steerforth!

Gau artatik Gummidge Andrea bestelakotu zan. Peggotty Jaunari lagundu gura eutson, eta lanpetuta ebillan. Etxea garbitu ta aren jantziak zaindu ebazan. Biderako atonduten ebazan.

—Neure ibillaldia biar asiko da —Peggotty Jaunak esan eban— London'era joango naz eta emendik asi. Emily topauko dot!

Urrenge egunean, Peggotty ta biok gurdian joan gintzazan. Ham eta Gummidge Andrea etozan be. Peggotty ta bere neba gurdian sartu ziran, baiña Ham'ek gelditu ninduan.

—David Jauna —esan eustan— Peggotty Jaunak dirurik bear izango ba'leu, neuri eskatu bear daust. Mesedez esaiozu.

—Esango dautsot. Baiña Peggotty Jauna orain ez da txiroa. Barkis'en dirua dauka. Baiña esango dautsot.

Alkar agurtu genduan eta gurdia urten zan. Gummidge Andrea gurdi ondotik joian.

—Agur Daniel —Peggotty Jaunari oiuegin eutson—. Ez buruausterik izan, ez larritu. Emily topauko dozu. Etxea zainduko dot. Zu etxera zatozenezan, emen izango nozu. Agur!

Oso ezbardia zan. Ez zan edozergaitik keixu.

London'era eldu ta Peggotty Jaunarentzat eta onen arrebarentzat gela bat aurkitu genduan. Steerforth Andrea ikertu gura neban, eta Highgatera bideratu nintzan. Ba-ekian Steerforth ta Emily'rena. Peggotty Jaunatzaz berba egin neutson.

—Zer gura dau? —itaundu eustan— ez dot bera ikusi nai.

Arro ta asarratuta irudian. Gero, esan eustan:

—Ez, ltxaron. Bera ikusiko dot. Ekarrri egizu ona biar.

Urrenge egunean Andrea ikusten joan gintzazan. Steerforth Andrea auklian zuzen-zuzen egoan, eta Rosa berarekin.

—Zu neskaren osaba zara ezta? —Steerforth Andreak arro esan eutson.

—Bai.

Esanekoa zan, baiña ez aren bildurrik.

—Neure semea ez da Emily'rekin ezkonduko. Neska ori ez da Andre bat.

—Andrea izan leiteke —erantzun eutson Peggotty Jaunak—. Argia da, beraz mutilla berarekin ezkondu leiteke.

—Ez da neskagaz ezkonduko. Neure semea ezagutzen dot.

—Gurera etorri zanean, berarekiko maitekorrak izan gintzazan —Peggotty Jaunak erantzun eutson—. Uste izan genduan adiskidea zala. Gero, gauza zikin au egin dausku. Uts egin yaku.

—Neure semeak ez dau jendeari uts egiten. Jauna da, baiña zu zorigaiztokoa zara, ta ez dozu ulertzen. Damu dot, eta diru emongo dautzut. Rosa, ekarrri egidazu dirua.

—Ez! —deadar egin eutson Peggotty Jaunak—. Ez dot zure diruaren bearrik. Zeugaitik tamala dot, Steerforth Andrea. Zure semea uts egin yatzu be. Orain bertan joango naz. Ezin dagikidazu lagundu.

Bere atzetik urten nintzan, baiña Rosa'k zurubian gelditu ninduan.

—Zu izan zara! —asarratuta deadar egin eustan—. Zuk etxe orretara eroan zenduan. Zuk eroan zenduan jende zakar, basati orrengana.

—Emily ez da zakar ez basatirik! —erantzun neutson—. Eta Peggotty Jauna gizon ona, maitekorra da. Steerforth kalte aundia egin dautse. Uts egin yat.

—Gorroto dautsot! Gorroto dautsot neska orreri! Berak guztieri uts egin yaku!

Etartetik urtenda atzera begiratu neban. Rosa atean egoan. Bere aurpegia asarrekoï ta zuria zan, eta ondo ikusi negikean bere orbana. Itsusia eritxan.

Olan ba, Peggotty Jauna bere ibillaldia asi eban. Emily billatzen asi zan. Askò erruki neban. Baiña ez nintzan beti naigabetuta egon. Spenlow Jauna egunero ikusten neban. Dora beti gogoan neukan.

Bein baten, esan eustan:

—Neure alaba gogoratzen dozu, ezta Copperfield Jauna?  
Bera gogoratu? Zelan aztu? Baiña auxe bakarrik esan neutson?  
—Dora Andereiñoa? Bai. Zergaitik Jauna?

—Jai bat ospatu gura dau. Etorri zaitkez? Jaiak atsegin ete yatzuz?

Joango ba'nintzan? Jaiak atsegin ete yatazan? Spenlow Jaunak ez eban itauntzeko bearririk. Baiñan berak ez ekian eta nik ez neutson esan.


—Bai Spenlow Jauna —erantzun neutson—. Eskerrik asko. Jai noiz da?

—Datorren astean. Ez yatzu aztuko, ezta?  
—Ez, ez yat aztuko.

Dora'k idatzi eustan be. «Etorri jaira mesedez» iñoan. Txartela biotz-ondoan neroian. Astea astiro igaro zan. Gero eguna goiztu zan. Jantz barria nerabillan, eta Dora'ri lore batzuk neroatsozan. Gero, bere etxera joan nintzan.

Baratzan jesarrita egoan bere laguna zan neska batekin. Onen izena Julia Mills zan. Jip txakurtxua egoan be. Murdstone Andereiñoa ez egoan eta poztu nintzan. Dora loreak ederretsi ebazan. Txakurrari erakutsi eutsozan.

—Usaindu lore oneik, Jip —txakurrari esan eutson —ez al dira politak?



Dora Julia ta Spenlow Jauna gurdi batean eta ni zaldiz.

Baiña Jip'ek ez ebazan maite, ta loreak usigiten asi zan.  
—Ez olakorik egin, Jip —Dora'k oi u egin eutson—. Ez ondatu lore ederrok! Copperfield Jaunak ekarri dauz-eta!

Maite ebazan neure loreak, eta zorionsua nintzan.  
—Bearbada maite nau —nerekiko oldoztu neban.

Baiña ez neutson olakorik esan.

Jai e z zan etxean. Landara joangintzazan. Dora Julia ta Spenlow Jauna gurdi batean eta ni zaldiz. Jai-lekuan jende asko egoan. Dora' ren lagunak eta auzokoak ziran. Alorrak eta munoak ikusi gengikezan. Zugaitz batzuen ondoan gelditu gintzazan. Landak lorez beterik agertzen ziran. Egun ederra benetan. Janaria ta ardoa atara genduzan.

Baiña ez neitekean Dora-ondoan jesarri. Mutil gazte bat jaian egoan, eta Dora'rekin berba egiten eban, eta onek barrez. Zorigaitzokoa nintzan. Mutil gaztea ez yatan atsegin.

Nik neska bateri berba egiten neutson. Polita zan be. Dora'k gu begiratz e ginduzan. Ez eban barrerik egiten eta mutil gazteari jaramonik be ez. Orduan poztu nintzan.

Bazkaldu ostean, Julia'k Dora ekarri eustan.  
—Dora ez dago pozik —Julia'k esan eustan.  
—Zergaitik ba?  
—Kitt Andereiñoari berba egin dautsozu, baiña ez neuri —Dora'k erantzun eustan.  
—Baiña nik ezin. Mutil gazte batekin egon zara-ta. Ni baiño dotoreagoa zan. Zu barreka ta ni zoritxarrekoa izan naz.  
—Damu dot —Dora'k esan eustan—. Berba egin orain. Egon zait e z nire ondoan.

Olan ba, Dora'rekin geratu nintzan. Abestu egin eban, eta neugaz berba egin be.

Gero, bere gurdian etxera joan zan. Bere ondoan zaldiz niñoan. Spenlow Jauna lotan egoan. Olan ba, Dora'rekin itz egin negikean. Bidai artan zorionsua izan nintzan.

Etxera eldu, ta barriro atsekabetu nintzan.  
—Etxera joan bear dot —esan neutson—. Noiz ikusiko dogu alkar barriro?  
—Ez dakit —Dora'k esan eustan.



Erestuna atzamarrean sartu.

Itun eritxan.

—Entzun! —esan eustan Mills Andereiñoak—. Datorren astean Dora neure etxera etorriko da. An Dora ikertu dagikezu. Murdstone Andereiñoa ez da an izango. Zatoz nire etxera datorren astean.

—Eskerrik asko Julia! —erantzun neutson—. Eskerrik asko! Ona ta maitekorra zara.

Etxera zaldiz biurtu nintzan. Abestu ta barre egin neban. Oso zoriontsua nintzan.

Alan ba, Julia'ren etxera joan nintzan. Neskame batek atea zabaldu eustan.

—Mills Jauna, etxean al da?

—Ez, ez dago —neskameak esan eustan —baiña Mills Andereiñoa bai. Zatoz mesedez.

Etxean sartu ta neskamearen atzetik zurubian gora joan nintza. Sakelean erestun bat neorian. Dorarentzat zan. Erestunak arri urdiñak eukazan. Baiña Dora'ren begiak erestunaren arriak baiño urdiñagoak ziran.

Dora ta Julia gela batean jesarrita egozan. Julia laster urten zan. Dora ta biok bakarrik geratu gintzazan.

—Esango dautsot? —neure buruari esaten neutson.

Baiña ez nintzan azartu. Ez neutson olakorik esan.

Gero, Dora'k neuri begiratu ta irribarre egin eustan. Gela zearkatu ta neure besoetan artu neban.

—Dora! —esan neutson— maite zaitut! Nirekin ezkonduko al zara?

—O David! Neuk be maite zaitut. Bai, zurekin ezkonduko naz.

—Erestun bat erosi dautzut —esan neutson—. Itzi nagizu zure atzamarrean sartuten.

Erestuna atzamarrean sartu, ta mosu bat emon neutson.

—Orain neure erestuna darabilzu. Neurea zara!

—Aitari baiña, ez dautsogu esango.

—Zergaitik?

—Asarratuko dalako.

Gero Julia sartu zan, eta dana esan geuntson. Asko poztu zan.

Arrezkero ez neban sarri askotan Dora ikusi. Baiña eskutitzak idazten neutsozan, bai ta berak neuri be. Aspaldi zoriontsua izan zan.

—Munduko gizonik zoriontsuena naz —nire buruari esaten neutson.

## 11'GN ATALA

Baiña gauza batzuk kezkatzen ninduen. Micawber Jaunak barri arrigarriak ebazan. Gau baten ikertu neban. Pozik egoan.

—Kaixo, Copperfield maitea! Sartu zaitetz! Barri on batzuk daukadaz. Nire estualdia amaitu da.

—Poztuten naz. Zelako barriak dira?

—Canterbury'ra goaz —esan eustan.

—Bai? —erantzun neutson— Micawber Jauna, zer egingo dozu an?

—Heep Jauna'k an nireztat lana dauka.

—Heep? Uriah?

—Bai —berak erantzun zorionez irribarre egiten eustala—. Lan oso ona da. Zeregiña ondo beteten ba'dot, legegizona izango naiteke.

Etxera joan, eta gauza oneiri buruz oldoztu neban. Arrigarria zan, eta Micawber Jaunari damu neutson. Uriah'k kalte egingo leuskiola uste neban.

Urrengo egunean beste ezuste bat artu neban. Etxera eldu nintzanean, nire gelan andre bat egoan.

—Kaixo iseko Betsey. Au ezuste atsegiña da. Baiña zergaitik London'era etorri? Uste neban ez yatzula atsegin.

—Ez yat atsegin!

Bere bide-zorroaren ganean jesarrita egoan, eta ez eritxan pozik.

—Zer dala-ta iseko?

—David, atso zoroa naz.

—Zergaitik?

—Diru guztia galdu dot. Orain ez daukat dirurik. Emakume txiroa naz. Zurekin geratu naiteke?

—Bai —esan neutson—. Geratu zaitetz.

Arrituta nengoan.

Alkarrekin jan eta isekoa oera joan zan. Gero, ni be oeratu nintzan. Baiña ezin negikean lorik egin. Orain ni be txiroa nintzan. Txiro izan eta Dora'rekin ezkondu? Bere aitak «EZ» esango leuke. Dora'k gizon txiro bat maite izango leuke? Bai orixel! Ona ta maitekorra zan! Nik lanari gogor ekingo neuskio, ta laster dirua lortu be. Orduan Dora nirekin ezkondu leiteke. Baiña orain ez neinteke legegizonik izan.

Urrengo egunean, Spenlow Jaunarengana joan nintzan.

—Iseko diru guztia galdu egin dau —esan neutson—. Orain txiroa da bai ta neu be. Ezin naiteke legegizonik izan. Isekoari bere milla librak atzera emon dagikiozuz?

—Ai mutil! —Spenlow Jaunak oi u egin eban—. Orreik barri txarrak doguz. Itxaron apur bat. Emon dagikizut dirua, baiña lankide bat dot. Jorkis Jauna, neure lankidea, gizon gogorra da. Isekoari ez dautsoz milla librak emongo. Ez daust itziko berari milla librak emoten.

—Damu dot benetan —erantzun neutson.

Baiña Spenlow Jaunaren esana ez zan guztiz egizkoa. Jorkis Jauna ezagutzen neban eta ez zan gizon gogorra. Spenlow Jaunak ez eban isekoari dirua emon gura. Baiña au ez neutson esan. Idaztolatik urten nintzan.

—Ez dodaz milla libra orreik lortuko —neure buruari esan neutson.

Kalean gurdi bat ikusi neban. Gurditik dei egin eusten. Agnes zan, eta beragana joan nintzan.

—Zure begira nago —esan eustan—. Zure isekoarena entzun, eta benetan damu dot.

—David?

—Bai.

—Neure aitak ez dau zure isekoaren dirua galdu, ezta?

—Ez dakit —erantzun neutson—. Goazen eta ikusagun iseko.

Gurdian sartu nintzan.

—Heep Andrea ta Uriah orain gurekin bizi dira. Aita bestelakotu da. Uriah'ren morroia langoa da. Gauza onek asarratuten nau, baiña aitari ez dautsoz ezer esan.

Ettxera eldu ta sartu gintzazan.

—Egunon Agnes —isekok esan eutson—. Zelan emetik?

—Aitari buruz kezkatuta nago. Gauza bat itaundu dagikizut?

—Jakiña —erantzun eutson iseko'k—. Zer da?

—Aitak zure diru guztia galdu ete dauan.

—Ez —isekok erantzun eutson—. Dirua neuk galdu dot. Atso zoroa naz. Zure aitak dirua gaizkatu gura eban, baiña nik galdu neban.

—Pozik nago —Agnes'ek esan eutson— aitagaitik, eta zuregaitik damu dot. Lagundu dagikizuet. Gizon bat ezagutzen dot eta lana emongo dautzut, David. Dirua jadetsi dagikezu.

—Ondo. Dirua bear dot. Gerturik nago lan asko egiteko.

—Ori ba-dakit —esan eustan Agnes'ek—. Biar asi zaitkeez.

Urten nintzan. Dora ikusi gura neban. Julia Mills'ekin egoan, eta onen etxera joan nintzan. Kanpoan gelditu nintzan. Gero, Mills Jauna urten zanean, sartu al izan neban.

—Dora —esan neutson— itxura ederra dozu!

—Eskerrik asko David. Jip! David'eri mosu bat emoiozuz!

Txakorra altzau eban. Jip mosukatu neban, ta gero Dora'k neuri. Bere ondoan jesarri nintzan.

—Dora, barriak dodaz.

—Onak? —itaundu eustan.

—Ez gustiz onak.

—Orduan ez dodaz entzun gura. Esan egidazuz barri onak.

Barre egin eban, eta berak txakurrari mosu bat emon eutson.

—Esan bear dautzut. Dora, txiroa naz.

—Ez izan zororik. Txiroak gizon argalak aurpegi loiduneta-koak dira. Zu ez zara txirorik.

—Ez naz benetako eskalea, baiña isekok diru guztia galdu egin dau. Orain txiroa naz.

—Ai David —oiu egin eban Dora'k—. Ez olakorik esan! Gaixoa! Bildur naz!

—Ez bildurrik izan, Dora —esan neutson—. Ez gara txiro-txirorik izango. Baiña ez aberatsak.

—Ol, ez olakorik esan, naigabetzen nau-ta!

—Ez naigabetu —esan neutson— itzi egidazu berba egiten. Entzun mesedez.

—Zeri buruz egingo dozu berba?

—Ezin doguz morroi-neskamerik izan —esan neutson—. Janaria atonduten ete dakizu?

—Jatekoak atondu? Ez, ezin dot.

—Ikasi dagikezu? —itaundu neutson—. Dirua aurreztu bear dogu be. Dirua aurreztuten ikasi ete dagikezu?

—Dirurik aurreztu? Ez! es dakit janaririk atonduten, eta ezin dot dirurik aurreztu. Eta ez dot ikasi gura! David gogorra zara!

Negarrez asi zan.

—Julia! —oiu egin eban— zatoz mesedez. David zakarra da!

Julia sartu zan. Dora besarkatu eban, eta itz maitekorrek esan eutsozan.

Dora laster nasaitu zan.

—Damu dot Dora —esan neutson— naigabetu zaitut. Ez dot olakorik barriro egingo. Maite zaitut.

—Nik be maite zaitut, David —begiak txukatuaz esan eustan— baiña ez dirurik barriro aipatu.

—Ez dot aipatuko —erantzun neutson.



Oneik zure eskutitzak ete dira?

Etzetik naigabeturik urten nintzan.

—Lan gogor egingo dot! —neure buruari esan neutson—. Orduan diru asko irabaziko dot, eta Dora ez da naigabetuko. Traddles ikusiko dot.

Traddles'ek idaztariñari buruz berba egin eustan.

—Idaztariña, idazteko era ariña da —esan eustan— ikasi egizu idaztariña ta diru asko irabaziko dozu.

—Ikasiko dot.

Olan ba, idaztariña ikasi neban, eta Traddles'ek lagundu eustan. Goizetik ikasbide barrira niñoian, eta gero Spenlow Jaunaren idaztolara, ta emen gauarte lan egiten neban. Gauetz Traddles'ekin idaztariña ikasten neban. Gatxa zan eta astiro ikasten neban. Baiña lan gogor egiten neban diru asko irabazteko asmoz. Dora'kin ezkondu gura neban, eta orretarako dirurik bear.

Egun baten, Spenlow'ek dei egin eustan. Bere idaztolan egoan. Aurpegi asarrekoia eban, eta berarekin Murdstone Andereiñoa zan.

—Copperfield —esan eustan— engañatu nozu. Zu ez zara jaunarik!

Ezin neban oldoztu. Arrituta nengoa.

—Engañatu? —esan neutson.

—Bai, engañatu dozu! —Murdstone Andereiñoak esan eustan— begira au!

Txartel batzuk ebazan.

—Gizon gaiztoa zara! Mutil gaiztoa izan zintzazan, eta orain gizon gaiztoa!

—Murdstone Andereiñoa! —Spenlow'ek gogor esan eustan— itzi egidazu berba egiten! Copperfield! Oneik zure eskutitzak ete dira?

—Bai, neureak dira.

—Irakurri egizuz! —eskutitzak emonaz esan eustan.

—Ez dot bearrrik —esan neutson— Dora maite dot, eta ez naz lotsatuten.

—Dora maite! —Murdstone Andereiñoak eten egin eustan—. Zuk bere diruak maite dozuz!

—Murdstone Andereiñoa —esan eustan Spenlow Jaunak—. Naitu mesedez!

Gero esan eustan:

—Copperfield, arrituta nago. Zurekin ez naz zuzenean egon. Nire etxera etorri zintzazan, eta nik jauntzat artu zindudazan. Ni-



retzat adiskidetsu ta ona bezela izan zintzazan, baiña ez benetan. Neure alabari maitasun-eskutitzak bialdu zeuntsozan. Ez dozu barriro ikusi bear!

—Ezin dot nire itza emon —esan neutson—. Zure alaba maite dot, bai ta berak ni be. Orrek zorigaiztokoa egingo dau.

—Gazte zara —Spelow Jaunak erantzun eustan— Dora'k alde egingo dau. Prantzi'ra barriro bialduko dot. Zuk gero aztuko dozu.

—Ezin dot aztu. Maite dot.

—Ori zorakeria da —esan eustan Spelow Jaunak— Entzun. Zure isekok dirua galdu dau. Txiroa zara. Ni ez naz olakorik. Neure azken naia egin dot, eta Dora'k dirua artuko dau. Baiña neure naia aldatu dagiket. Ulertu dozu?

—Bai. Itz emon bear dautzut edo bestelan Dora'ri ez dautsozu dirurik itziko.

—Bai. Egia da. Pentsau ori Copperfield. Berba egin isekoakin. Dora'k ezin dau txiro batekin ezkondu. Zure isekoak ulertuko dau.

—Pentsatuko dot —erantzun neutson— baiña Jaungoikoarren! ez asarratu Dora'rekin.

—Ez naz berarekin asarratuko —Spelow Jaunak esan eustan— ez larritu. Orain urten eta ondo pentsau.

Oso zorigaiztokoa nintzan. Isekori esan neutson, baiñan ezin egikidan lagundu. Julia Mills ikusi neban, baiña damu ba-eban ezin egikidan lagundu be. Gau aretan ez neban lorik egin.

Urrengo egunean idaztolara joan nintzan. Idaz-mutil guztiak zalaparta bizian ziran.

—Zer jazoten da? —itaundu neban.

—Spelow Jauna da —esan eustan.

—Gexorik ete dago?

—Ez. Il da.

—Il! —esan neutsen— zelan baiña?

—Bart etxera joiala, zaldia bildurtu ta gurdia irauli zan. Gurdiak il eban.

Spelow Jaunaren bazkidea etorri zan.

—Barri txarrak dira, Copperfield —Jorkis Jaunak esan eustan— Spelow Jaunaren azken naia topau gura dogu, baiña ez dau azken nairik egin.

—Bai, egin dau Jorkis Jauna —esan neutson—. Atzo orreri buruz esan eustan.

—Ezin dogu topau —esan eben idaz-mutillek.

Barri txarra zan. Dora'ri tamala neutson, baiñan ez negikean bera ikusi. Putney'n bizi zan bere isekoagana joan izan zan. Ez egikean nitzaz oldoztu, aita maiteatzaz baño.

Idaz-mutillek ez egikien azken naia topau. Ez zan aberatsarik. Bere zorrak ordainduak izan ziran, eta orduan enparaua zenbatu. Dora'rentzat ez egoan diru askorik.

Aldi txarra izan zan. Putney'ra askotan niñoan, eta kaleetatik ibiltzen nintzan. Baiña ezin Dora ikusi. Oso goibel eta zoritxarrekoa nintzan.

## 12'GN ATALA

Atsekabeak nekaturik itzi ninduan. Opor bat bear neban eta Canterbuty'ra joan nintzan. Agnes'eri Dora'rena esan neutson.

—Zer egin dagiket, Agnes?

—Idatzi eskutitz bat isekoaren etxera —Agnes'ek erantzun eustan— esaiozu Agnes ikusi bear dozula.

—Eskerrik asko —esan neutson— burutapen ona da.

—Esan egidazu geiago Dora'ri buruz.

—Oso polita da —erantzun neutson— eta asko maite dot, baiña ezin dau dirurik aurreztu, ez janaririk atondu be.

Agnes'ek barre egin eban.

—Ez larritu David —esan eustan— Dora gaztea da. Laster ikasiko dauz gauza orreik egiten.

—Eskerrik asko Agnes. Asko lagundu daustazu. Nire lagunik onena zara.

Agnes'ek oi ez bezela begiratu ninduan, eta irribarre egin eban.

—Nik beti lagunduko dautzut. Ori jakin dagizun gura dot. Zure adiskidea beti izango naz.

Gau aretan, Agnes'ek eta biok onen gelan berba egin genduan. Heep Andrea gurekin egoan. Ez ginduzan bakarrik itzi, eta asarratu nintzan. Baiña Agnes eta Wickfield Jauna, Uriah'ren eta onen amaren bildur ziran.

Urrengo gauean Agnes'ekin jesarrita nengoa, eta Heep Andrea gurekin barriro egoan.

—Zergaitik Agnes'en eta nire zelatan egon? —neure buruari esan neutson.

Ez neban Heep Andrea maite, ta orregaitik egurastutera joan nintzan. Uriah'k jarraitu eustan.

—Nora zoaz, David Jauna?

—Egurastutera —erantzun neutson—. Ezin dot Agnes'ekin berbarik egin. Zure ama beti gurekin dago.

—Bai.

—Zergaitik gure zelatan egon? —itaundu neutson.

Uriah'k bere begi gorriak itxi ebazan etaso iñabiurrikatu yakon.  
—O, David Jauna. Zu gazte bikaiña zara! Amak zure zelatan egon bear!

—Zergaitik? —itaundu neutson— Uriah! Zergaitik?

—Agnes'ek maite zaitu urrean —erantzun eustan— ba' liteke zuk berarekin ezkondu nai izatea.

—Agnes'ekin ezkondu? Ez iñezkoa da. Nik Dora maite dot. Berarekin ezkondu gura dot.

—Dora? Nor da Dora? —Uriah'k itaundu eustan.

Dora'ri buruz esan neutson.

—O, David, poztuten naz! —Uriah'k esan eustan— amari esan-go dautsot:

—Baiña Agnes ez da zurekin ezkonduko, Uriah.

Uriah'k begi gorriak itxi ta barrero zabaldu ebazan, eskuak alkartuaz.

—Ez da nirekin ezkonduko, David Jauna? —ixiltu itaundu eustan.

—Ez! —erantzun neutson.

Baiña gau aretan Heep Andreak Agnes eta biok bakarrik itzi ginduzan. Wickfield Jaunak, Uriah'k eta nik alkarrekin apaldu genduan. Uriah larri egoan.

—Wickfield Jauna, edan ardao apur bat —esan eutson.

Wickfield Jaunak ardao asko edan eban. Uriah'k ez eban ardao askorik edan, baiña urduritsu berba egiten eban. Wickfield Jauna moskortuta egoan. Begiak itxi ebazan.

—Agnes neska ederra da! —esan eban Uriah'k—. Edan geiago Wickfield Jauna!

Wickfield'ek begiak zabaldu baiña ez eban edan.

—Bere senarra gizon zoriontsua izango da! —Uriah'k esan eban.

—Senarra! —esan eutson Wickfield'ek— senarra?

—Bai senarra esan dot —Uriah'k erantzun eutson— bere senarra izan al dot?

Wickfield jagi zan. Aurpegia zuri ta asarratuta eban. Betaurrekoak jausi yakozan eta apurtu ziran.

—Zu! —Wickfield Jaunak oi ugin eutson— zu? Bere senarra? Txakur ori!

Uriah orduan asarratu zan.

—Ez olakorik esan Wickfield! —deadarrez esan eutson—. Nik jabatzen zaitut. Ez aztu ori! Zure alabagaz ezkondu naiteke!

Wickfield'ek atzamarra Uriah'ganantz zuzendu eban.

—Zu... zu... —esan eutson.



Etorri aita. Zatoz oera.

Agnes sartu zan.  
—Zuen oiuaik entzun dodaz —esan euskun— etorri aita. Zatoz oera.

Agnes'ek Wickfield Jauna eroan eban.  
—Moskortu da —Uriah'k esan eustan—. Biar damutuko dau. Aztu au David Jauna.  
—Aztuko dot. Gabon!

Uriah'rekin asarratuta nengoan, eta bakarrik itzi neban.

Urrengo egunean Canterbury'tik urten nintzan. Uriah barrero oso adiskidetsua eritxan Wickfield Jaunarekin. Baiña Wickfield baketsua egoan. Agnes ikusi neban.

—Agur Agnes —esan eta eskua emon neutson—. Ezkondu zaitetz gizon on batekin.  
—Bai David. Ez larritu.

Baiña bere aurpegia naigabetuta eritxan.

London'era eldu nintzan, eta isekori Uriah'tzaz berba egin neutson. Asarratu zan.

—Agnes'ek ez dau Uriah'rekin ezkondu bear —isekok esan eustan— Uriah gizon gaiztoa da.

Bein batean lanetik etxera niñoala, kalean ezustean gelditu nintzan. Gizon bat eleiz baten ondoan egoan. Beragana joan eta eskua artu neutson.

—Peggotty Jauna! —esan neutson—. Au bai arrigarria! Zelan gazoz?

—Ondo, eskerrik asko, David Jauna.  
—Eta Emily? —itaundu neutson.

Peggotty Jaunak burua astindu eban.

—Ez dakigu aren barririk.

—Non izan zara? —itaundu neutson.

—Prantzia'n izan naz. Ezin dot prantzeraz berba egin, baiña jendea oso ona izan da niretzat. Prantzia'ko bideetatik ibilli nintzan Emily'ren billa. Baiña zoritxarrez ez neban idoro. Olan ba Ingalanderra'ra barrero ta Yarmouth'era joan nintzan. Etxean eskutitz bat eta diru apur bat egozan. Emily'gandik etozan. Eskutitza olan iñoan: «Parkatu egiztazu!» Baiña eskutitzean ez egoan Emily'ren izena. Emen dago dirua.

Peggotty Jaunak berrogetamar librako txartel bat erakutsi eustan. Gure ondoan emakume bat egoan. Begiratu neban, baiña ez zan joan. Emakumea ezagutzen neban. Martha Endells zan.

—Zelan dago Ham? —itaundu neban.

—Ondo dago, David Jauna —esan eustan Peggotty Jaunak—.

Lan gogor egiten dau, baiña beti atsekabetuta.

—Zer egingo dozu orain? —itaundu neutson.

—Emily'ren billa joango naz. Orain joan egin bear dot. Agur, David Jauna.

Peggotty Jaunak eskua luzatu eustan. Laster kalean bera joian, atzera begiratu barik. Ezin neban Martha Endells ikusi. Atsekabez beterik aurrera joan nintzan.

Dora'ren isekoak idatzi eustan. Eskutitzak olan iñoan: «Gure etxera etorri zaitেকে. Ekarri mesedez lagun bat zurekin.

Traddles eroan neban. Sophy'tzaz berba egin eustan.

—Sophy neskatil zoragarria da. Asko maite dot eta laster ezkonduko gara. Baiña onen aizpak ez dabe olakorik gura. Aizpa asko dauz eta berak laguntzen dautse. Aizpek olan diño: «Sophy gurekin geratu bear dau. Ez dauz bere aizpak itzi bear». Olan ba, bere aizpek ez nabe maite.

—Baiña Sophy zurekin ezkonduko da, ezta?

—Bai orixe! —aurpegi itunaz Traddles'ek esan eustan— Sophy'ri esaten dautsot: «noiz ezkonduko gara?» ta berak diñost: Ez dakit, ez naz oso ziur».

—Ez larritu Traddles —esan neutson— Sophy'rekin ezkonduko zara. Itxaron bear dozu.

—Bai. Sophy ta biok gazteak gara. Itxaron dagikegu.

Dora'ren isekoak oso zarrak ziran. Onein izenak Lavinia ta Clarissa andereiñoak ziran. Jantzi baltzak erabiltzazan, eta berba astiro ta ixiltsu egiten eben. Traddles'eri ta niri benaz itz egin euskuen. Clarissa Andereiñoak esan eustan:

—Astean birritan etorri zaitেকে. Larunbat eta Domeketan etorri zaitেকে. Ondo deritxazu?

—Bai benetan, Clarissa Andereiñoa —erantzun neutson—. Eskerrik asko.

Olan ba, aste guztietan Dora ikertzen neban. Iseko nirekin etorri zan. Dora ta isekoak atsegin yakozan. Isekoek Dora oso ondo erabilten eben, eta iseko Betsey berarentzat ona zan be. Danak eregauten eben. Au ez yatan atsegin.

—Dora neure maitea —egun baten esan neutson.

—Bai, David?

—Liburu bat erosi dautzut.

—Eskerrik asko David —esan eustan.

—Sukaldeko liburua da.

—O! —esan eban Dora'k— sukalde-liburua!

—Irakurri egizu —esan neutson— liburu ona da. Janaria atonduten ikasiko dozu.



Amaiketako bat artu genduan.

Itun eritxan. Saiatu zan, baiña laster itzi be.  
—Janari-atontzeak aspertzen nau —esan eustan— saiatzen naz baiña zailla da.

Agnes London'era etorranean Dora ikusten eban. Dora asko ategin yakon. Joan zanean, Dora'k Agnes'tzaz itaundu eustan.

—Oso polita da ezta? —Dora'k esan eustan.

—Bai guztiz polita da.

—Aspalditk ezagutzen dozu, ezta?

—Bai —erantzun neutson— umetandik alkar ezagutu genduan.

—Orduan —itaundu eustan Dora'k— zergaitik maite nozu?

—Agnes nire arreba langoa da. Eta nik asko maite zaitut.

### 13'GN ATALA

Lan gogor egin neban. Idaztariñaz dirua irabazten neban. Elebarri (nobela) bat idatzi neban, eta diru emon eusten. Elebarri geiago idazten asi nintzan. Illeak igaro ziran, eta ogetabost urte bete nebazan. Azkenik gizona nintzan! Orain Dora ta biok ezkonduko gintzakez.

Etxe txiki polita idoro neban.

—Atondu bear dogu —Dora'ri esan neutson—. Maiak, aulkia eta beste gauzak etxerako bear doguz.

Sarri askotan dendetan ibiltzen gintzazan, baiña ez genduan gauza asko erosi.

—Mai ta aulkirik ez dodaz benetan maite —Dora'k esan eustan.

Bein baten, Jip'entzat etxetxu bat erosi eban. Arranbelak ebazan.

—Polita da —Dora'k esan eustan— Jip poztuko da!

Adoregabetu nintzan. Gure etxe barrirako gauzak erosi gura nebazan. Ez neban txakurrentzat etxetxuak erosi gura. Baiña Dora maite neban eta ixildu nintzan.

Eguna eldu zan. Traddles'ek eleizara lagundu eustan. Spohy ta Agnes Dora'rekin joan ziran. Dora urduri egoan, baiña Agnes lagun ona izan zan. Nire iseko ta Dora'renak eleizan egozan, eta irurak negarrez.

Ez dot ezkontza ondo gogoratzen. Ezkondu ta gero danok amai-ketako bat artu genduan, baiña ez naz gogoratzen. Zoriontsua nintzan, eta eguna ametsa langoa izan zan.

Gero Dora ta biok gurdiz etxera joan gintzazan. Azkenean baka-  
rrik gengoazan. Etxean sartu ta atea itxi genduan.

—Zorionsua zara, David? —Dora'k itaundu eustan.

Besarkatu neban eta bere begi ederrak begiztatu nebazan.

—Zorionsua diñozu, neure maitea? —erantzun neutson—. Bai  
benetan, au nere bizitzako egunik ederrena da.

—Orain benetan zure emaztea naz. Ez dozu damurik izango,  
ezta?

—Ez, ez dot damurik.

Benetan, neure bizitzako egunik ederrena zan!

Dora maite neban. Baiña etxea ez yatan gogokoa. Dora'k ezin  
eban etxea erabilli. Neskame asko izan genduzan. Mary Ann, gure  
lenengo neskamearen izena zan. Zorua zan eta sarri askotan  
moskorra.

—Dora —gau batean esan neban—. Apaltzeko barandu da. Atzo  
gauean be berandu izan zan. Etxe onetan aparta beti berandu, ta  
Mary Ann'ek gure aparta oso txarto atontzen dau. Esan bear dau-  
tsozu. Itz gogogorrekaz esan bear dautsozu.

—David, ezin dot —Dora'k esan eustan—. Gogorra zara. Ezin  
dodaz neskameak erabilli. Arein bildur naz.

Eta Dora negarrez asi zan.

—Arren, ez negarrik egin —esan neutson— tamala dot. Mary  
Ann'eri berba egingo dautsot.

Mary Ann'ekin berba egin eta kanpora bota neban. Gero, ema-  
kume zar bat etorri yakun. Oso zarra zan, eta ezin ebazan lanak  
ondo egin. Ganera neskame txarra zan. Olan ba kanpora bota  
neban. Neskame asko izan genduan eta danak txarrak.

Dora'k ez ekian dirurik aurreztu. Janarian diruketa bat gasta-  
tzen eban, baiña janaria ez zan ona. Dora'ri esan neutson. Naiga-  
beturik, negarrez asi zan.

—O David, emazte txarra naz. Ez naz zuurra. Ezin dodaz nes-  
kameak erabilli, ez eta dirurik aurreztu be. Baiña neurekin ezkon-  
du ziñan eta orain damu dozu. Nik be damu dot. Maite zaitut,  
David.

Begiratu ninduan, eta bere begi ederrak malkoz bete ziran.

—Ez larritu Dora, neure maitea —erantzun neutson—. Ez ne-  
garrik egin. Txukatu malkoak. Nik ez dot damurik. Nire emaztea  
zara ta maite zaitut.

Dora barriro zorionsua zan. Ez neutson Dora'ri diruari buruz  
ezer esan, baiña isekoari esan neutson.

—Lagundu dagikiguzu iseko Betsey? Mesedez erakutsi egiozu  
Dora'ri dirua zelan aurreztu.

—Ez —esan eustan— ez dot olakorik egingo David. Gogoratu  
zure ama. Dora bezelakoa zan. Zure amari ez neutson maitekiro  
barbarik egin, eta nire bildur zan. Ez dot Dora'ri irakatsi gura,  
nire bildur izango da-ta. Dora'k asko maite zaitu. Ez aztu au Da-  
vid. Ez da zuurra, baiña maitekorra ta polita da, ta maite zaitu  
Naikoa da. Ez asarratu berarekin. Ez irakatsi, onek zorigaiztokoa  
egiten dau.

—Ez dautsot irakatsiko, iseko Betsey —esan neutson.

Bein baten, Traddles apaltzera etorri yakun. Apari txarra  
izan zan. Neskameari azpillak (platerak) jausi yakozan, eta Jio  
mai-gaiñean ibilli zan. Asarratu nintzan, baiña Traddles barre  
egin eban.

Joan zanean, Dora ondoratu yatan. Atzamarra agoan ipiñi eban,  
eta aurpegi itunaz, esan eustan:

—O David, aparti txarra izan da zure lagunarentzat, eta asarra-  
tuta zagoz. Damu dot.

—Ez larritu Dora, neure maitea —esan neutson.

—Baiña lur-jota nago. Emazte ona izan gura dot, baiña ezin.  
Ez naz zuurra. Ume bezelakoa naz. Aleginduten naz, baiña etxea  
ez da egokia. Ez asarratu. Esan: «Dora umea baiño ez da». Orduan  
ez zara asarratuko.

Ez nintzan asarratu berarekin. Ezin neban. Maitekorra ta po-  
lita zan. Baiñan ezin egikidan laguntzarik emon. Gauetz elebarriak  
idazten nebazan, eta Dora'k ez eban ulertzen nire lana. Ezin egi-  
kidan lagundu beraz. Baiña nire ondoan jesarrita begiratzen nin-  
duan. Au atsegin yatan.

Egun baten, Rosa Dartle'k dei egin eustan. Lana itzi ta Steer-  
forth Andrearen etxera joan nintzan. Rosa'k izpar arrigarriak  
emon eustazan, eta bereala Peggotty Jaunagana joan nintzan. Bere  
gelan egoan.

—Emily'k Steerforth itzi dau —esan neutson.

—Benetan? —zutundu zan arin— neure Emily kutun gaixoa!  
Non dago?

—Ez dakit.

Rosa'k esandako izpar guztiak emon neutsozan.

—Ez da il! —Peggotty Jaunak esan eban— neure Emily ez da il!  
Bildur nintzan eta orain itxaropena dot! Zelan dagikegu topau?

—Ez da etxera, au da, Yarmouth'era joango —erantzun neu-  
tson— lotsatuta izango da. London'era etorriko da urrean. Lon-  
don'en jende asko dago. Emen jende artean ezkutuan bizi daiteke.

—Bai, emen ezkutuan daiteke —erantzun eustan Peggotty Jaunak.

—Baiña topau al dogu —esan neutson— gomutatzen dozu Martha Endells?

—Bai, Emily'k bein baten lagundu eutson.

—Martha London'en dago —esan neutson— Emily'ri lagunduko dautso urrean.

Kalean gora ta bera Martha'ren billa joan gintzazan. Laster topau genduan. Jantzi zikin eta zarrak erabillazan, eta bere aurpegia oso ituna zan. Ez geuntson barbarik egin, baiña bere atzetik joan gintzazan.

Kale oso landerretatik joan. Estu ta zikiñak. Martha ibairantz joan, eta ez ginduzan ikusi. Gau otz eta euritsua zan.

Azkenean Martha gelditu zan. Ibai ondoan egoan. Ibai guztiz zikin eta otza eritxan.

—Martha! —oiu egin neutson.

Beragana joan nintzan, eta besotik artu neban. Negarrez asi zan. —Ibaia, ibaia —esaten eban— joaten itzi nagizue! Il gura dot. Ez dot dirurik, eta emakume gaiztoa naz. Ilten itzi nagizue!

—Artu egizu besotik, Peggotty Jauna —esan neban.

Peggotty Jaunak Martha'ren besoa artu ta ibaitik aldendu genduan. Martha'k negar samia egiten eban, eta ezin eban barbarik esan.

—Nasaitu zaitez Martha —esan neutson—lagunduko dautsugu. Zeuk be lagunduko daskuzu?

Azkenik, Martha baretu zan.

—Nortzuk zarie, ta zer gura dozue?

Emily'tzaz berba egin neutson. Martha'k begiratzen ninduan.

—Orain gogoratzen zaitut —esan eustan.

Malkoak txukatu ebazan.

—Emily neure laguna da. Bein baten Yarmouth'en lagundu eustan, eta orain lagunduko dautsot. Jendeari beratzaz itaunduko dautsot. Kaleetatik bere billa joango naz. Topauko dot, eta nire gelara eroan. Gero zeueri esatera etorriko naz. Gaur gaizkatu nozue, ta pozik nago.

—Eskerrik asko Martha —esan neutson— artu diru au.

—Ez. Emily neure laguna da. Ez dot dirurik bear. Baiña zein da zure zuzenbidea?

Nire zuzenbidea emon neutson. Gero, Peggotty'ri agur esan eta gero, etxera joan nintzan.

## 14'GN ATALA

Neure lenengo liburu amaitu neban. Liburu ona izan zan eta diru asko irabazi neban. Aberatsa nintzan, baiña etxeko giroa ez zan egokia. Dora'k ezin eban etxea ondo erabili. Oindio neska-me asko genduan.

Bat mutilla izan zan, eta dirua ostu euskun. Beraz, espexera joan zan.

—Dora neure maitea —gau aretan esan neutson— ez doguz gauzak ondo erabilten.

—Zer esan gura dozu? —itaundu eustan.

—Bestera jokatu bear dogu. Neskame asko doguz, eta danak txarrak. Gure errua da. Neskameak ondo erabili bear doguz.

—Ez da gure errua, neurea baiña —Dora'k esan eustan—. O David, aleginduten naz, baiña ezin dodaz erabili. Mesedez, ez izan gogorra!

—Ez larritu, Dora. Neuk erabiliko dodaz.

Olan ba, erabili nebazan. Orduan etxea ez zan iguingarria. Baiña lanpetuta nengoan, eta nire bizitza gogorra zan. Lanean eta etxe-erabilketan jarduten nintzan.

—Dora bestelatu bear da —neure buruari esan neutson— erakutsiko dautsot, eta orduan zurrta izango da. Orain ez da emazterik ez lankiderik. Ume langoa da. Esango dautsot, eta liburuak irakurriko dautsodaz. Orduan ikasiko dau.

Olan ba, irakatsi ta liburu zaillak irakurri neutsozan. Baiña ezin erraz ikasi. Ume langoa zan oindio.

—Ume bat izango dogu —oldostuten neban— Dora'k umea zainduko dau, ta orduan benetako emaztea izango da.

Ume bat izan genduan, baiña il egin zan. Oso itungarria izan zan. Gero, Dora gaixotu zan. Egun guztian oean egoan, baiña zoriontsua zan. Barre egiten eban, eta isekoakin berbetan egoten zan.


—David —bein baten esan eustan— zu ez zara zorigaiztokoa, ezta?

—Zorigaiztokoa? Ez, maitea.

—Ez naz emazte onik. Ba-dakit ori. Etxea ezin erabili, ta zure liburuak ezin dodaz ulertzen. Zu argia zara baiña ni ez. Zoroa naz, baiña maite zaitut David. Ask maite zaitut. Oindio maite nozu, ezta?

—Bai Dora, maite zaitut. Beti maite izango zaitut.

Egia zan. Dora asko maite neban, baiña nire bizitza uts eta nekagarria zan. Elkar berba egiten genduan, baiña ezin geinkeazan



Micawber Jaunak oiua ta negar egiten eban.

gauzak bardin ikusi. Bera ume langoa zan, eta ni berarentzat aita langoa. Bene ako senarra izan gura neban.

Bein baten, Micawber Jaunak eskutitz arrigarria idatzi eustan. Kezkatuta nengoan. Olan ifioan: «Laguntza bear dot. Ezkutu bat daukat, eta orrek oso zorigaiztokoa egiten nau. Ezin dot ezkutu nire emaztearekin banatu. Lagunduko daustazu?»

Traddles'eri eskutitzarena esan neutson. Micawber Jaunari etxera dei egin neutson. Traddles nirekin egoan. Micawber Jauna agertu zanean, aurpegia zuria eukan eta atsekabeturik eritxan.

—Zelan zagoz, Micawber Jauna? —esan neutson— eta zelan dago Wickfield Jauna?

—Ondo dago eskerrik asko. Zarra gertatzen ari da, baiña ondo dago.

—Eta Uriah Heep, ondo dago? —Traddles'ek itaundu euston.

Micawber Jaunak ezin izan eban barbarik egin. Aurpegia zuria eta agoa zabalik ebazan. Azkenean, deadar egin eban:

—Heep! Uriah Heep! Txakur ori! Abere ori!

—Nasaitu zaitetz, Micawber Jauna —esan neutson— ez dogu beratzaz barbarik egingo. Zelan dago Wickfield Andereiñoa?

—Wickfield Andereiñoa? —beste itxuraz erantzun eustan—. Ondo dago. Ona ta maitekorra da. Ezin dot beratzaz oldoztu... Nik...

Eta Micawber Jauna negarrez asi zan. Traddles'eri begiratu neban bai ta berak niri be. Arrituta gengoan. Micawber Jaunak oso bakan jokutzen eban. Itz egiten asi zan barriro.

—Ezin dot egin! Zuek danak onak eta lagunak zarie. Ez dodaz lagunik merezi. Gizon gaiztoa naz. Heep langoa naz. Baiña beste-latuko naz. Heep'eri buruz esango dautzuet! Baliteke espetxera joan nadin, eta etxeokak diru barik geratu daitezaz. Baiña aren ezkutu guztiak esango dautzuedaz.

Micawber Jaunak oiua ta negar egiten eban, eta ezin geuntson ondo ulertu.

—Nasaitu zaitetz —esan neutson— jesarri zaitetz.

—Ez! —oiua egin eban— ezin naiteke nasaitu. Gorroto dautsot! Etorri Canterbury'ra ta aren ezkutu guztiak esango dautzudaz! Zatoz datorren astean! Etorri nire ostatura!

Micawber Jauna oso urduri egoan. Ezin eban barbarik egin. Begiraten ginduzan. Gero, arifieketan urten zan.

—Arraioa! —esan eustan Traddles'ek— gauza txarra da! Micawber Jauna zoro ete dago?

Baiña Micawber Jauna ez egoan zorotuta. Eskutitz bat bialdu euskun. Ona emen ifoana: «Zure etxean oso sututa nengoan, eta zoro moduan berba egin neban. Barkatu egiztazue, baiña etorri mesedez datorren astean Canterbury'ra. Orduan Heep'eri buruz esango dautzuet».

Urrengo gauean nere baratzatik ibiltzen nintzala. Micawber'en eskutitza gogoan nerabillan. Emakume bat baratzan sartu zan.

—Copperfield Jauna! —esan eustan.

—Martha! Barririk ete dakartzu?

—Bai —esan eustan— baiña non dago Peggotty Jauna? Topau bear dot.

—Sarri askotan ni ikustera dator. Baiña gaur ez dago emen.

—Bere etxera joan naz —esan eustan—. Ez dago an. Eskutitz bat itzi dautsot. Neugaz etorri bear dozu.

Martha'k etxe lander batera eroan ninduan. Zurubian gora joan giñan. Zurubitik, gure aurrean, emakume bat joian.

—Emakume ori ezagutzen dot —esan neutson— ori...

—Ez barbarik egin —Martha'k agindu eustan.

Emakumeari jarraitu geuntson. Ate baten ondoan gelditu, ta atean egoan izenari begiratu eban. Gero, sartu zan.

—Goazen barrura! —esan neutson— Emily barruan ete dago? Lagundu bear dautsogu.

Emakumea Rosa Dartle zan.

—Itxaron! —Martha'k esan eustan— itxaron eta entzun.

Kanpoko aldetik adi egon gintzazan.

—Zure izena Emily da, ezta? —itaundu eutson Rosa'k.

—Bai —Emily'k erantzun— baiña nor... nor zara?

—Nire izena Rosa Dartle da —erantzun eutson— Steerforth andrearekin bizi naz.

—Steerforth! —Emily'k suzmurka erantzun eutson.

—Bai, Steerforth —berba otz eta gogorraz Rosa'k erantzun eutson— ikusagun zure aurpegia. Bai, aurpegi polita, zoroa, ta biotz gaiztoa! Ba-dakit.

—Ez! —esan eutson Emily'k negarrez— zergaitik ona etorri? Zergaitik esaten dozuz gauza gogor orreik?

—Gorrote dautzut. Zuk Steerforth amagandik kendu bai ta neugandik be... Gorrote dautzut. Zure aurpegi politik engafiatu eban. Zuk bere dirua gura zenduan. Olan ba gugandik eroan zenduan, eta berak ama ta biok saldu ginduzan.

—Ez —Emily'k negarrez esan eutson— maite neban. Asieran berak maite ninduan.

—Maite? —biotzgabe esan eutson Rosa'k— zuk ezin dozu maite. Ez zara andrerik. Zu arraintzaleen alaba zara. Steerforth'ek erosi zinduzan. Zuk dirua bear, eta berak zu erosi.

—Ez! Ori ez da egirik! Zergaitik etorri zara ona?

—Min egin gura dautzut —Rosa'k erantzun eutson—. Zure errua da, zuk mindu zeustan eta nik orain mindu gura dautzut. Etxe au itzi bear dozu. Zoaz barriro zure etxeokelkin.

—Ezin! Ezin dot! —negarrez esan eutson Emily'k— nere etxeokak eta Peggotty barriro ikusi gora dodaz, baiña ezin dot. Lotsatuta nago.

—Etxe au itzi bear dozu. Engalenderra'tik urten bear dozu. Nik eroango zaitut. Emakume zoro, gaiztoa zara. Jendeari esango dautsot. Danak gorrote izango dautzue. Kanpora botako zaitue, kanpora! Zoaz atzerrira!

—Ez gogor izan! —Emily'k oiur egin eban— itzi ni emen egotea. Ez naz benetako emakume gaiztoa. Itzi mesedez emen geratu nadin.

—Ez! —deadarrez esan eutson Rosa'k— kanpora, gorrote dautzut!

Rosa gelatik urten zan. Ez ginduzan Martha ta biok ikusi. Zurubian bera joian, eta gizon batekin gurutzatu zan. Gelan, Emily negarrez egoan. Gora joian gizona Peggotty Jauna zan. Gelan sartu zan.

—Emily neure maitea! —esan eutson— azkenik topau zaitut! Eskerrak Jaungoikoari. Ez negarrik egin neure maitea. Orain ziur zagoz.

—Ez naz emen geratuko —Martha'ri esan neutson— Emily ba'nakus lotsatuko da. Peggotty Jauna nire etxera etorriko da, ta Emily'tzaz esango daust. Eskerrik asko, Martha.

Urten eta etxera joan nintzan.

Gau artan Peggotty Jauna etorri zan. Dora goian gaixorik egoan. Emily'tzaz berba egin eustan.

—Oso pozik nago. Azkenean topau dot. Len zorigaiztokoa izan da, baiña orain zorionsua da. Bart bere bidaldiari buruz esan eustan. Ingalanderrara biurtu zanean, Martha'k topau ta bere gelara eroan eta zaindu eban. Martha'k asko lagundu dautso. Oso ona da.

—Orain zer egingo dozu? —itaundu neutson.

—Emily'k ezin dau Yarmouth'en bizi —erantzun eustan— angolagunek oso ondo ezagutzen dabez bera ta bere gora-berak. Lotsatuta dago. Beste ifiora joango gara. Aste batzuen buruan Australi'ra joango gara. Gummidge Andreari diru emon bear dautsot eta etxe bat berarentzat topau. Gero, Australi'ra joango gara.



Peggotty gure aspaldiko neskamea Ham'en etxean bizi zan. Berak Ham zaintzen eban. Orduan Peggotty Jaunari esan neutson.—Zure arrebak tamala izango dau, baiña ez da zurekin Australi'ra joango, ezta?

—Ez, Ingalanderran geratuko da. David Jauna, emen eskutitz bat daukat. Steerforth Andrearentzat da, ta oso laburra. Dirua bialtzen dautsot. Steerforth'ek Emily'ri emondako dirua. Diru guzti ori Steerforth Andreari bialtzen dautsot. Eroango dautsozu?

—Bai —erantzun neutson— eroango dautsot.

—Eta neurekin Yarmouth'era etorriko zara nire arreba ikus-tera? Orrek poz aundia emongo dautso.

—Bai, joango naz.

Olan ba, Peggotty Jaunarekin Yarmouth'era joan nintzan.

Peggotty gure aspaldiko neskamea ikusi neban, eta gero oseratxu bat egitera Ham'ekin urten nintzan.

—Copperfield Jauna —esan eustan— Emily ikusiko dozu. Berak ba-daki parkatu dautsodala. Ezin dot bera ikusi. Lotsatuko ta nigandik ezkutatuko da. Zorigaiztoko gizona naz. Oindiño maitete dot. Baiña au ez berari esan. Oso zoritxarrekoa izan da. Ez dau orain biziera larririk eroan bear. Nitzaz pentsaten ba'dau naigabetuko da.

Ham'ek bere esku sendoa besoa ipiñi eustan.

—Beraz, esaiotzi au, Copperfield jauna: «Emily, ez zaitetz larritu, Ham zorienttua da. Biziera zorienttua daroa». Orduan poz- tuko da.

Ham gizon ona zan. Eskua emon neutson. Gero itzi neban, eta Peggotty Jaunaren etxera joan nintzan. Emily oean egoan. Gummidge Andrea Peggotty Jaunarekin egoan.

—Copperfield Jauna —Gummidge Andrea esan eustan— esaiot- zu, esaiotzu Peggotty Jaunari: «Zuk ez dozu Gummidge Andrea Ingalanderran itzi bear. Eroan egizu zurekin».

Peggotty Jaunaren besoa artu eban.

—Itzi nagizu zurekin joan, Daniel. Itzi nagizu Australi'n bizitza zurekin igaro. Es nagizu emen itzi!

—Ez zaitut itziko Gummidge Andrea —Peggotty Jaunak eran- tzun eutson— etorri zaitেকেz Australi'ra.

—O, Daniel, eskerrik asko! Ez naz nekagarrikerik izango, ez eta kexatu be. Zuretzat eta Emily'rentzat lan asko egingo dot.

Urrengo egunean Yarmouth itzi ta London'erako nintzan. Emen Traddles ikusi neban. Garaia zan Micawber Jauna ikusteko. Iseko-



Micawber Jaunak zigorraz jo eban.

rekin Canterbury'ra joan gintzazan. Wickfield Jaunaren idaztegia Ikertu genduan, Gaixorik egoan eta oean zan. Micawber Jaunak Uriah Heep'gana eroan ginduzan.

—Au atsegiña! —Uriah'k esan euskun— Copperfield Jauna, Trotwood Andereñoa ta Traddles Jauna!

Eskuak alkar igortzi ebazan, eta irribarre egin euskun, baiña asarratuta egoan.

—Micawber Jauna, urten zaitkez —esan eutson.

—Ez naz urtengo —Micawber Jaunak erantzun eutson.

Eskuan zigor eta eskutitz bat eukazan. Bere aurpegia zuria zan, eta berba egiten eban arin.

—Orain ulertzen dot —esan eban Uriah'k— au asmaketa dala. Copperfield zuk egin dozu au. Zuk gorroto daustazu, ta au nire morroi Micawber'ekin asmatu dozu!

—Zuk egin dozu asmaketa, Heep —Micawber Jaunak oiu egin eutson—. Zuk Wickfield Jaunaren kaltez asmaketa bat egin dozu. Aitu! Dana eskutitz onetan idatzi egin dot.

—Emon egidazu eskutitz ori! —deadar egin eutson Uriah'k. Eskutitza arrapatu gura eban, baiña Micawber Jaunak zigorraz jo eban. Uriah'k arriturik, atzera egin eban deadarrez. Heep Andrea gelan sartu zan.

—Geldi Heep! —Micawber Jaunak oiu egin eutson— nire eskutitza irakurriko dot!

—Uriah, izan apala —esan eutson Heep Andreak— izan zaitez apala jaun oneikin.

—Ez ama —Uriah'k asarratuta erantzun eutson—. Irakurri begigu eskutitza, ez naz bildurrik.

Micawber Jauna irakurten asi zan.

—Etorri nintzan, eta Heep'entzat lan egin neban. Au guztiok dakizue. Berak maileguz diru emon eustan. «Orain dirua zor daustazu —Heep'ek esan eustan— espetxera bialdu zagikedaz. Nire morroia zara. Lagundu bear daustazu». Lagundu neutson, baiña Heep gizon gaiztoa da. Dirua ostuten dau. Wickfield Jaunari ostu eutson. Milla ta berreun libra ostu eutsozan. Jendeak Wickfield Jaunari diru ori emon izan eutson. «Begiratu neure dirua» esan eutsoen, baiña Heep'ek diru ori ostu eban. Heep'ek orduan Wickfield Jaunari esan eutson. «Zuk dirua artu dozu. Txartel bat izenpetu zenduan, eta dirua artu. Mozkor zengozan, eta ez zara gomutatzen. Zu sarri askotan moskor zagoz». Wickfield Jaunak Heep'eri siñistu eutson, eta lotsatuta egoan.

—Egiztatu ori! —oiuka esan eutson Uriah'k— egiztatu ori Micawber! Ezin dozu egiztatu!

—Egiztatu dagiket! —Micawber Jaunak erantzun eutson— txar-tela daukat. Zure idazmaitik ertu neban. Zure asmakuntza liburu txiki batean idatzi zenduan. Liburu ori daukat!

—O Uriah izan zaitetz apala! —deadarrez esan eutson Heep andreak.

—Nasaitu ama —oiu egin eutson Uriah'k— aurrera Micawber Jauna.

Onek barriro irakurten jarraitu eban.

—Wickfield diru apur bat eukan. Heep'ek diru ori be kendu eutson. Baiña Wickfield Jauna Uriah'ren bildur da. Ezin dau jendeari gauza oneri buruz ezer esan. Heep'ek diruketa bat ostu dau, ta egiztatu dagiket!

—Neure dirua! —oiu egin eban isekok.

Heep'engana oldartu zan. Oratu ta esan eutson:

—Neure dirua ostu zeustan. Nik uste izan neban Wickfield Jaunak dirua galdu egin ebala, ta orregaitik ez neutson Agnes'eri ezer esan. Baiña zuk dirua ostu zeustan. Orain berba egin dagiket. Emon egidazu neure dirua!

—Ez kalterik egin iseko! —esan neutson, eta eroan neban.

—Orain zer egingo dozu Heep? —Traddles'ek itaundu eutson— espetxera eroan bear zaitugu?

—Espetxera? Ai neure Uriah gaixoa! —Heep Andreak oiuka esan eban.

—Nasaitu zaitetz ama —esan eutson Uriah'k.

Bere begi txiki gorriakaz begiratu ginduzan.

—Ez, ez naz espetxera joango. Dirua ordainduko dot.

Asarratuta, gelatik urten zan.

—Orain zorientzua naz barriro! —Micawber Jaunak esan euskun— ez nintzan zintzorik izan. Heep antzekoa nintzan. Baiña orain ezkutua esan dautzuet. Heep'en asmakizunari buruz esan dautzuet. Dirua zor dautsot, eta urrean espetxera eroango nau. Mezezi dot. Baiña orain etxekoeri berba egin dagikiet. Ez daukat ezer gorderik. Zorientzua naz!

—Orain lan barik zagoz Micawber Jauna —isekok esan eutson— zer egingo dozu?

—Lana? —Micawber'ek erantzun eutson— orain ezin dot olakorik gogoan izan. Australi'ra edo joango naz. Zorientzua naz! Etxekoak ikusi bear dodaz!

Eta abestu egiten ebala, Micawber Jauna gelatik urten zan.

Isekoari begiratu neban, eta berak niri. Barreka asi giñan.



Dora oso txikia eritxan.

## 15'GN ATALA

Orain nire edestia ituna da. Dora oso gaixorik aurkitzen zan, eta ezin eban oetik urten. Baiña alan be Jip'ekin jostatzen eban. Jip zarra egiten zan. Ezin eitekean kanpotik ibilli, ta Dora'rekin etxean egoten zan.

—Jip zarra da Dora —isekok esan eutson— txakur txiki bat erosi al dautzut. Txakur gazte bat ortik ibilliko zan, eta alaigarria izango litzake.

—Ez, eskerrik asko, iseko Betsey —Dora'k erantzun eutson— David'ek bein lorak ekarri eustazan, eta Jip'ek usigi ebazan. Jip ikustean egun areik gogoratzen dodaz. Ez dot txakur gazterik gura. Jip gura dot.

Jip gaixoa zarra ta astikorra zan, eta Dora zurbil eta gaixorik egoan. Baiña bera nirekin beti irribarretsu, nirekin berba egiten eban alai.

Bein baten, ez eban irribarrerik egin. Bere aurpegi gaixo zurbillari begiratu neutson, eta atsekabetu nintzan.

—David —esan eustan— Agnes bear dot. Idatzi egiozu. Esaiozu «Dora'k ikusi gura zaitu».

Olan ba, Agnes'eri idatzi neutson. Agnes gurera etorri zan. Dora'ren oe-inguruan jesarriten zan, eta berba egiten eutson. Agnes beti maitekor eta paketsu egoan, eta Dora'ri laguntzen eutson.

Egunak igaro ziran. Dora oso geldirik egoan. Ezin eban oean jesarri, etzan baiño. Ez egikean jendeari berbarik egin, agopetik zoezer esan baiño.

Gau baten Agnes etorri yatan. Aurpegia oso ituna eban.

—Dora'k bear zaitu —esan eustan.

Zurubian gora Dora'gana joan nintzan. Dora oso txikia eritxan, baiña oindiño aurpegi polita eban.

—Jesarri zaitetz, David maitea —agopetik esan eustan.

Bere ondoan jesarri nintzan, eta eskua artu neutson.

—David —esan eustan— emazte txarra izan naz. Etxe au ez da atsegiña izan, eta ez dautzut lagundu. Ez nebazan zure liburuak ulertu. Baiña maite izan zaitut. Parkatu egidazu.

—Dora neure maitea —negarrez esan neutson— zu ez zara emazte txarra izan. Maite zaitut.

—Pozik nago —Dora'k agopetik esan eustan— beti maite izan zaitut, baiña ba-noa. Naigabetuta bai ta pozik aurkitzen naz. Orain emazte barria artu dagikezu. Zuretzat emazte ona izango da.

—Ez —oiu egin neban— ez dot beste emazterik gura, Dora!  
Zu bear zaitut!

Dora'k uleak laztandu eustazan.

—Pozik nago —erantzun eustan— oindiño zure Dora zorotxu  
gaixoa maite dozu. Ekarri mosu bat, eta Agnes'eri esan etorteko.

Dora'ri mosu bat emon neutson, eta Agnes'gana joan nintzan.  
Zurubian gora Dora'gana joan zan eta ni aulki batean jesarri nin-  
tzan. Jip aulki-ondoan egoan.

—O Jip! —esan neutson— Dora gaixoa! Iltan ari da urrean!  
Naigabetuko zara, Jip gaixoa!

Jip ez zan igitu. Ukutu neban. Jip laztana ilda egoan. Agnes ge-  
lan sartu zan eta aurpegira begiratu neban. Itxura ituna eban.

—Agnes! —oiu egin neban.

Zutundu nintzan.

—Esaidazu, il ete da?...

—Il da, David —leunkiro erantzun eustan.

Aldi aretan gertatu zana, ez naz ondo gogoratzen. Ez neban  
berbarik egiten, eta sarri askotan negarrez ari nintzan. Dora asko  
maite izan neban. Aspaldi oso ituna izan zan.

—Atzerrira joango naz —erabagi neban— Ingalanderra orain  
leku guztiz goibela da. Baiña lenago Micawber Jauna ta Traddles  
ikusi bear dodaz.

Wickfield Jaunari laguntzen eutsoen.

—Wickfield Jaunak diru asko galdu dau —Traddles'ek esan  
eustan— Uriah Heep'en errua da. Wickfield Jauna orain guztiz  
txiroa da. Ganera geixorik dago, baiña Agnes'ek lagunduko dautso.  
Ikastola txiki bat zabalduko dau, ta olan dirua irabazi dagike. Baiña  
Trotwood Aldereiñoaren dirua topau dogu. Uriah Heep'ek ez eban  
diru ori ostu. Barrero bost milla libra ditu. Beraz orain oso aber-  
ratsa da.

Isekori diruarena esan neutson.

—Micawbertarrerri lagunduko dautset —esan eustan isekok—  
Micawber Jaunak Uriah'ri dirua zor dautso, ta ezin ordaindu,  
beraz Uriah'k' espetxean sartu dagike. Baiña nik dirua emongo  
dautsot ta ez da espetxera joango.

Micawber Jaunaren etxera joan gintzazan. Micawbertar guztiak  
jantzi barriak erabiltzazan. Australi'rako ziran. Micawber Jaunak  
jantzi barria erabillan. Zeozer arrotza eritxan, baiña bera jantzia-  
gaitik arro egoan.



Isekoaren eskua mun egin eban.

—Pozik nago! —esan eustan— ez daukat ezkuturik, eta laster Australi'ra joango naz. An gizon garrantzitsua izango naz!

Eta barre egin eban.

Gizon bat etorri zan.

—Micawber Jauna? —itaundu eban.

—Ni naz Micawber.

—Espetxera joan bear dozu —gizonak esan eutson—. Heep Jaunari dirua zor dautsozu. Ogei libra zor dautsozuz. Paper onek egizatzen dau.

—Ez, ez! —oiu egin eban Micawber Jaunak— ez daukat dirurik. Espetxera joan bear dot! An ilgo naz, bai ta etxeakoak be! Eurek ez dabe dirurik. Gizon zoritzarrekoa naz.

Au esanik, Micawber Jauna negarrez asi zan.

—Ez larritu, Micawber Jauna —isekok esan eutson— emen dagoz ogei librak. Ez dozu espetxera joan bearrik.

Gizonari ordaindu neutson, eta joan zan.

Micawber Jaunak isekoren eskua mosukatu eban.

—Ona zara —esan eutson— gizon zoroa naz. Ni beti zorretan, baiña espetxetik gaizkatu nozu. Eskerrrik asko. Barrero zoriontsua naz.

Eta Micawber Jaunak abestitxu bat kanta euskun, eta gure osasunaren alde edan egin eban.

Gau aretan, isekok Micawber Jaunatzaz berba egin eustan.

—Micawber Jaunak diru bear dau. Australi'rako dirurik bear dau. Bost eun libra emongo dautsozaz.

—Micawber Jaunari ez dirurik emon —esan neutson— diruarekin burua galtzen dau. Peggotty Jaunak be Australi'ra joan gura dau. Oneri emoiozu dirua. Micawber'entzat gorde ta zainduko dau.

—Ondo deritxat —isekok erantzun eustan— olan egingo dot.

—Peggotty Jauna ikusi ta berba egingo dautsot —esan neutson.

Peggotty Jaunaren etxera joan nintzan. Gumidge Andrearekin egoan. Ez neban Emily ikusi. Micawber Jaunatzaz berba egin neutson, bai ta isekoren diruatzaz.

—Micawber'eri lagunduko dautsot —Peggotty Jaunak esan eustan— dirua begiraturiko dautsot.

—Eskerrrik asko.

—Emily'k Ham'entzat eskutitz bat idatzi dau. Ezin dautsot eskutitza eroan, oso lanpetuta nago-ta. Zelan eskuraturiko dautsot?

—Ni ez nago lanpeturik —esan neutson.

Es neban beste egitekorik, eta zeozer egin gura neban, Dora burutik kentzearren.

—Yarmouth'era joango naz eta Ham'eri eskutitza eroango dautsot.

Olan ba, Yarmouth'era gurdiz joan nintzan. Egun goibela zan. Oztzia illuna ta aizea zakarra ta zaratatsua zan. Eldutean, jatxi nintzan baiña aizea gogorra zan, eta alik ariñen ostatuan sartu nintzan.

—Eguraldia guttiz txarra da, Jauna —esan eustan gizon batek.

—Bai benetan. Ez dot egundo olako eguraldirik ikusi.

—Olan da Jauna. Yarmouth'ek ez dau olako eguraldirik iñoiz ezagutu. Itxasoa oso asarratuta dago. Itxasontzi asko ondatu da ta gizon asko il be.

—Txarra da benetan —erantzun neutson.

Gau aretan ekaitzak kezkatu ninduan. Ezin neban aparria irun-tsi. Aize gogorraren bildur nintzan. Oera joan, baiña ezin lorik egin. Aizeak leioak astintzen ebazan.

—Aizeak ostatu au ondatuko dau antza —neure buruari esan neutson.

Urrengo egunean zerbitzaria gelan sartu zan.

—Arin! —deadar egin eustan— zoaz arin itxasora. Itxasoak ontzi bat ondatu dau, baiña oindiño gizonak gaizkatu dagikeguz.

Zerbitzari ta biok ariñeketan joan gintzazan. Arin ibiltea zailla zan. Aizeak gure aurka etorran. Itxas-ertzera eldu gintzazan.

Ertzean giza-talde aundia egoan. Arekin Ham aurkitzen zan. —Non dago ontzia? —oiu egin neban.

Aizea oso gogorra zan.

—An! —gizon batek atzamarraz erakutsi eustan.

Ontzia ikusi neban. Ez egoan urrun. Ontzian lau gizon ikusten ziran. Itxas-zartada batek euretarike bi eroan ebazan. Bildur nintzan eta oi egin neban. Orain gizon bi baiño ez ziran ikusten. Auetarike bat garaia zan eta kapel gorria erabillan.

—Ekarri soka bat! —Ham'ek deadar egin eban— gizon areik gaizkatu dagikedaz. Uger egiñaz areingana joango naz.

Gizon batek soka luze bat ekarri eutson. Ham'ek soin-ingurua ipiñi eban. Danok ontziari begiratzen genduan. Itxasoak mendi baten itxura eban. Ontzi-ganean barrero jausi zan. Ontziari begiratu genduan, gizon biak an egozan oindiño.

—Ez joan Ham! —oiu egin neutson— itxasoak ilgo zaitu-ta! Oso gogorra da.

Joan egin bear dot! Gizon areik gaizkatu bear dodaz.

Itxasoan sartu zan. Ertzetik, gizon batzuk sokea eusten eben. Ontziari begiratzan neban. Beste itxas-zartada barriro etorri zan. Ontzia ezkutatu eustan. Gero barriro ikusi neban. Orain gizon bakar bat egoan.

Gizonek sokatik tiratu eben, eta Ham ertzera ekarren.

—Emon egitzazue soka geiago! Barriro joango naz.

—Itxasoak aurpegia zauritu dautzu —oiu egin neutson— ez barriro joan! Ilgo zara!

—Joan bear dot!

Eta barriro itxasoan sartu zan. Aizea gogorra zan. Begietan min egiten eustan baiña Ham ikusi negikean. Ontzirantz ugeri egiten eban. Bere burua nenkusan. Astiro joan. Ontziko gizonak kapela gorria kendu ta astindu eban. Orain Ham ontzi-ondoan zan. Gizonaganañio eldu zan.

Baiña beste itxas-zartada etorran. Mendi antzekoa zan. Ontzi-ganean jausi zan. Itxasoak atzera egin eta ontzia eroan eban. Itxasoari begira gengoan.

—Ontzia joan da! —gizon batek oiuegin eban— ez doguz gaizkatu! Sokatik tirau!

Soka zirgatu eben eta Ham ertzera ekarri. Baiña Ham ilda egoan. Itxasoak il egin izan eban. Eroan eben.

—Jauna! —batek oiuegin eustan— zatoz arin! Gorputz bat, topau dot! Gizon bat da... Ontziko gizona!

Ertzetik joan nintzan. Gizon bat etzinda egoan. Eskuan kapel gorria eban. Ezagutu neban, bai ta ondo be!

—Steerforth, Steerforth gaixoa! —malkoak begietara etorri yatazan— emaztea il yat. Ham ilda dago, ta orain zeu be. Aspaldi neure lagun ona izan zintzazan, Steerforth gaixoa!... bai Ham gaixoa be!

Gizon batzuk Steerforth'en gorputza eroan eben. Ezin neban lagundu. Ertzean jarraitu nintzan. Naigabetuta nengoan.

Yarmouth itzi ta London'era joan nintzan. Highgate'ra eldu ta Steerforth Andrearen etxe-ondoan gelditu nintzan. Etxea illun eta goibel eritxan. Ateraiño joan, eta neskameak Steerforth Andrearen aurrera lagundu eustan. Rosa Dartle berarekin egoan.

—Copperfield Jauna! —itaundu eustan Steerforth Andreak— zergaitik?...

—Zure semea... —erantzun neutson.

Gelditu nintzan. Ezin neban besterik esan.

—Gaixorik ete dago? —esan eustan.

Emakume biek begiratzan ninduen. Euren aurpegiak zuri ta izuturik ziran.

—Esaiguzu —Rosa'k esan eustan— il da ezta?

—Bai.

Ekaitza ta ontziarena esan neutsezan.

Steerforth Andrea aulkian egoan baiña ez eban ezer esaten. Rosa'k bere aurpegiko orbana ukutu eban.

—Il da! —Steerforth Andreari esan eustan— Steerforth il da! Zeuk egin dozu ori! Zeuk bere ama! Txarto azi zenduan. Zu arro, bai ta bera be. Gazte zanean orban au egin eustan. Tamala izan eban, baiña zuk orbanari buruz barbarik ez. Oso arro azi zan. Ez zan besteengaitik arduratzen. Ez eban besterik gogoan, bere burua baiño. Zuk ori egin zenduan! Zuk!

Steerforth Andreak ez eban barbarik esan. Bere aurpegia zuri ta zara eritxan. Gaixorik irudian.

—Dartle Andereiñoa —esan neban— ixillik mesedez! Steerforth Andrea minduten dozu!

—Maite neban! —Rosa Dartle'k barriro— neretzat okerra zan, baiña maite neban. Ulertzen neban. Arroa zan, baiña maite neban. Berak be maite izango nau, pentsaten neban. Ezkonduko gara. Niretzat ez da senar maitekorrik izango, baiña zorionsua izango nai. Baiña itzi ninduan. Zeuk egin zenduan ori! Zeuk, aren ama!

Steerforth Andrea ez zan igitu, ez barbarik esan be. Emakume illa baten antzekoa zan.

—Dartle Andereiñoa, naiko! —esan neutson— Steerforth Andrea oso gaixorik dago! Ezin dauz zure berbak entzun.

Rosa Dartle neuganantz biurtu zan.

—Zu! Copperfield bere laguna! Berarentzat lagun txarra izan zintzazan. Yarmouth'era eroan zenduan. An, Emily ezagutu eban, eta onek kendu eustan. Zuk beti barri txarrak dakartzuz. Guretzat ez zara zorionaren ekarlerik! Kanpora! Gorroto dautzut! Kanpora!

Atean gelditu ta atzerantz begiratu neban. Rosa, Steerforth Andrearen ondoan egoan. Besoakaz atsoa inguratu eban. Steerforth Andrea geldi-geldi egoan. Rosa negarrez asi zan.

—Ai, neure maitea! Damu dot! Maite neban baiña zeuk be maite zenduan. Orain il da. Steerforth Andre gaixoa! Steerforth gaixoa

Etxe ituna itzi, ta neurera bideratu nintzan.

Urrengo egunean, Micawber'tarrak eta Peggotty Jauna atzeriratzeko ziran. Australi'rako ontzian egozan. Iseko ta biok eurek ikustera joan gintzazan.

Micawber Jauna barriro pozik egoan. Irribarre ta abestu egiten eban.

—Australi'n lan asko egingo dot —isekori itz emon eutson— Gizon garrantzitsua izango naz.

Isekoren eskua mun egin eban.

—Eskerrik asko Trotwood Andereiñoa!

Gero Peggotty Jauna etorri yatan.

—Ham'ek eskutitza artu ete eban?

—Bai —erantzun neutson.

Ez zan egirik. Ham il izan zan, baiña ezin neutson Peggotty Jaunari olako gauzarik esan.

—Non dago Emily? —itaundu neutson.

—An dago.

Emily'gandik urruntsu aurkitzen gintzazan, eta berak ez ninduan ikusi. Emakume bat urreratu yakon. Martha zan.

—Martha'k gurekin etorri gura dau —Peggotty Jaunak esan eustan— an bizi barria asi leike. Biziera barri ta ohea izango dogu.

—Agur Peggotty Jauna —esan neutson— nire aldetik Emily ta Martha agurtu egizuz.

—Agurtuko dodaz. Biurtuko naz. Barriro ikusiko zaitut, David Jauna.

Eskua emon eustan.

Micawbertarregana biurtu nintzan. Micawber Andreak negar egiten ebalu eskua emon eustan.

—Australi'tik idatziko dautzut, Copperfield maitea.

—Agur —esan eustan Micawber Jaunak.

—Agur —erantzun neutson.

—Ba-goaz —gizon batek esan eban.

Iseko ta biok ontzia itzi ta legorretik ontziari begiratzen genduan. Ontziari sokak kendu ta uretara jausi ziran. Ontzia urrun-tzen asi zan. Iseko ta biok eskuakaz agur egiten genduan. Peggotty'k ta Micawbertarrek guri bardin.

—Agur —danok oi u egin genduan.

—Orreik bizi barria asten dabe —isekok esan eustan.

Goibel nengoan. Neure lagunak ziran ta itziten ninduen. Nire emaztea, Steerforth eta Ham il izan ziran.

—Neuk be bizi barria asi bear dot —nire buruari esan neutson— Ingalanderra'tik urtengo naz. Lur barriak ikusiko dodaz eta orduan gauza itunak astuko dodaz urrean.

## 16'GN ATALA

Lurralde asko ikertu neban, baiña ezin aztu. Sarri askotan, Ham gaixo kementsua ta Steerforth gogoan nebazan. Dora oindifio maite neban, baiña il izan zan. Nire bizitza utsa zan, eta il gura neban be.

Gaixorik aurkitzen nintzan eta ezin neban lanik egin. Illeak igaro ziran, eta Suiza'ra eldu nintzan. Emen ibar eder baten bizi, nintzan. Astiro-astiro aztu neban. Ondo aurkitu nintzanean, jendearekin ibiltzen asi nintzan. Bizitzak barriro erakarten ninduan.

Liburu barri bat idazten asi nintzan. Traddles'eri bialdu neutson, eta Ingalanderra'n saldu eban. Onek dirua emon eustan.

Bein batean, Agnes'gandik eskutitza artu neban. Eskutitz maitekorra, zoriotsua izan zan. Bein eta barriz irakurri neban. Orduan neure buruari esan neutson:

—Zorua naz. Orain ba-dakit maite dodala. Baiña berak bere neba langoa nazala uste dau. Ezin dautsot esan «Zurekin ezkondu gura dot». Onek arrituko ta naigabetuko leuke. Ez dau nirekin ezkondu gura izango. Baiña Ingalanderra'ra biurtuko naz.

London'era joan nintzan. Otz aundia zan, baiña pozik nenbilla .kaleak eta etxeak ikusteagaitik. Traddles'en etxera joan nintzan lru gelatako etxe txikian bizi zan. Zurubian gora joan nintzan, eta neskatillen abotsak entzun nebazan.

—Ori gauza arrigarria da —nire buruari esan neutson.

Traddles'ek atea zabaldu eustan.

—Copperfield! —oiu egin eban— au ustebako poza! Sartu zaitzez! Aurrera! Itxura ona dozu.

—Aspaldiko! —esan neutson eskua emonaz.

Gelan andre bat ikusi neban.

—Au Sophy nire emaztea da —Traddles'ek esan eustan— Copperfield, gizon zoriotsua naz. Ezkondu naz, ezkondu!

—Ez zeustan ori esan ba! —oiu egin neutson.

—Ez, au ustebako gauza da!

Sophy neska polita zan. Bere aitzak berarekin bizi ziran. Lau aitzabazan, eta gela txiki areik beterik egozan. Baiña Sophy etxea oso ondo erabillan. Traddles eta aitzak zaintzen ebazan.

Etxekoandre ona zan. Gelak egokiak ziran, eta Traddles zoriontsua. Berba ta barre asko egin genduzan. Arratsalde atsegia izan zan, eta London'eko neure lenengo egonaldiak asko poztu ninduan.

Urrengo egunean Dover'era joan nintzan. Iseko'k barriak emon eustazan. Peggotty Jauna Australi'n zoriontsua zan, bai ta Micawber Jauna be. Lanari lotu izan zan, eta ez eban dirurik eskatzen. Isekori sarritan dirua bialtzen eutson.

—Agnes ezkondu ete da?

—Ez —isekoak erantzun eustan— baiña laster ezkondu leike.

—O! —erantzun neutson.

Isekok itxura bakanaz begiratu ninduan.

—Agnes neska oso polita da —esan eustan— baita oso ona be. Gizon askok berarekin ezkondu gura dabe.

—Ba-dakit ori —esan neutson.

—Ez da zoroa —isekok esan eustan— Neska batzuk ganorabakoak dira.

Barrero zorrotz begiratu ninduan.

—Gizon batzuk zoroak dira —esan eustan.

Iseko Dover'en itzi ta Canterbury'ra joan nintzan. Wickfield Jauna ez zan etxean, eta Agnes bakarrik egoan.

—Kaixo David —esan eustan— zelan zagoz?

—Ederto. Ondo ta pozik nago.

Au ez zan egirik. Ez nintzan zoriontsua, baiña ezin neban Agnes'eri egia esan.

—Zuk, barri onak daukazuz, ezta? —itaundu neutson.

—Barri onak? Ez dot ulertzen.

—Laster ezkonduko zara —esan neutson— es da ori barri onik?

—Ez —erantzun eustan Agnes'ek— ez da egirik. Ez naz ezkonduko, ezin dot.

Ustebage, bere begietan malkoak agertu ziran.

—Zentzunbakoa naz —esan eustan— ez niri begiratu.

—Jaungoikoarren! Zer dala-ta? Zergaitik ez zaitkez ezkondu?

—Gizon bat maite dot —esan eustan— baiña ezin dot berarekin ezkondu—. Berak ez nau maite. Nik beti maite izan dot.

—Beti? Agnes! Egia ete da? Nor da gizon ori?

Agnes beste aldera biurtu zan.

—Ezin dagikizut esan.

Besoak artu neutsozan.

—Agnes! Esan egidazu! Nor da bera?



Besarkatu neban.



Agnes'ek begietara begiratu ninduan.

—Zu zara gizon ori, David —esan eustan— damu dot. Zuk arrebatzat nozu, ta ez emaztetzat. Ba-dakit ori.

—Baiña nik emaztetzat maite zaitut —oiu egin neban— Maite zaitut Agnes. Burubakoa izan naz, baiña orain ba-dakit. Maite zaitut. Nerekin ezkondu gura dozu? Benetan maite nozu?

—Beti maite izan zaitut David. Eta zurekin ezkondu gura dot.

Besarkatu neban eta begietan begiratu neban.

—Zergaitik orren naigabetuta? —itaundu neutson.

—Ez nago benetan naigabetuta —esan eustan— baiña Dora gogoan dot. Bere gelara joan nintzan. Gomutako zara. Ilten ari zan. Orduan esan eustan «Agnes berba emon egistazu». Nik ez neutson ulertzen. «Zelango berba emon bear dautzut?» itaundu neutson. «Ezkondu zaitetz David'ekin» esan eustan eta gero il zan.

—Zure berba bete egin bear dozu! —esan eta mosu bat emon neutson.

Wickfield sartu zan. Gure artekoa esan geuntson, eta asko poztu zan. Agnes'ekin Dover'era biurtu nintzan.

—Kaixo David —isekok esan eban— kaixo Agnes.

Itxura bereiziaz begiratu ginduzan.

—Zuzen ziñan iseko —esan neutson— Agnes laster ezkonduko da.

—Baiña —esan euskun —ori ez da egirik izango.

Iseko atsekabetuta eritxan.

—Egia da iseko —erantzun neutson.

—Baiña, norekin ezkonduko da?

—Neurekin —esan neutson eta mosu bat emon neutson. Zoriontsua nintzan— neurekin ezkonduko da.

—Au poza! —isekok esan euskun— beti maite izan zaitu David. Ori ba-dakit.

Isekoa urduri egoan. Negar eta barre batera egiten eban.

Agnes'ekin ezkondu nintzan, eta London'en bizi gintzazan. Umeak izan genduzan. Egun baten, gizon bat etorri yakun. Peggotty Jauna zan. Australi'tik etorran. Gu ta umeak ikusi gura ebazan. Emily'tzaz itaundu geuntson.

—Emily ez da ezkondu. Baiña zoriontsua da. Jendeari laguntzen maite dau.

—Zelan dago Martha? —itaundu geuntson.

—Martha gazte batekin ezkondu da. Martha'rekiko ona da, ta biak zoriontsuak dira.

—Eta Gummidge Andrea?

Peggotty Jaunak burua astindu ta barre egin eban.

—Gummidge Andrea ez da ezkondu. Gizon batek berarekin ezkondu gura eban, eta berak ezetz! Baiña Australi'n ez dago naigabeturik. Beti pozik dabil. Lanean gogor jarduten da ta ondo zaintzen nau.

—Eta Micawber Jauna? Zer jazo yako Micawber Jaunari?

—O, berari buruz barri onak daukadaz. Gizon garrantzitsua da. Dirua laster irabazi eban. Orain oso aberatsa da. Ona emen, berak bialdu dautzun eskutitza.

Eskutitza emon eustan. Eskutitz maitekorra ta zoriontsua zan. Micawber'tarrak ondo egozan, ta zoriontsuak ziran.

Orain urteak joan dira. Isekok ez dauz bere ametsak galdu. Loba neskatilla dau orain. Gure alabatxua da. Dora izenekoa. Peggotty gure aspaldiko neskamea, gurekin bizi da. Bost seme-alaba ditugu. Danok alai ta osasuntsuak. Peggotty'k zaintzen dauz.

Traddles aberatsa da. Orain ez dautso diruari begiratu bear. Diru asko dauka, ta Sophy'rekin etxe eder polit batean bizi da.

Berandu da. Gaur jardun naz, liburu au burutzeko. Lan gogorra egin dot, eta berandu da. Baiña zoriontsua naz. Ez nago bakarrik, laguntza onakin baiño. Bera be lanean dabil. Gela onetako aulki batean dago. Sarri askotan begiratzen dot, eta berak irribarre egiten daust. Bera nirekin beti izango da, neure emazte ona ta zintzoa, neure biotzeko Agnes.